

6

EMAKUMEEN

PARTAIDETZA

EUSKADIKO

IHARDUERA

POLITIKOAN



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EMAKUMEEN

PARTAIDETZA

EUSKADIKO

IHARDUERA

POLITIKOAN

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Vitoria-Gasteiz 1994

IZENBURUA:	"Emakumeen partaidetza Euskadiko iharduera politikoan"
EGILEA:	EMAKUNDE / Emakumearen Euskal Erakundea. Manuel Iradier, 36. 01005 Vitoria-Gasteiz
DATA:	Martxoa 1994
ALE ZENBAKIA:	2.000
DESKRIBATZAILEAK:	Partaidetza politikoa, emakumezko diputatuak, emakumezko senadoreak, alkatesak, emakumezko zinegotziak, Administrazitako goi karguak, datu estatistikoak
TAJUERA GRAFIKOA:	Ana Badiola eta Isabel Madinabeitia
FOTOKONPOSATZAILEA:	RALI, S.A. Particular de Costa, 12-14. 48010 Bilbo
INPRIMATZAILEA:	Gráficas Santamaría, S. A. Bekolarra, 4. 01010 Vitoria-Gasteiz
ISBN:	84-87595-26-X
LEGE GORDAILUA:	VI-57/94

AURKIBIDEA

	Orr.
AURKEZPENEA	11
SARRERA	15
1. BOTERE POLITIKOA	21
1.1. Exekutiboa	23
1.1.1. Eusko Jaurlaritza. Europako Gobernuak	23
1.1.2. Foru Aldundiak	28
1.1.3. Udalak	29
1.2. Legegilea	31
1.2.1. Eusko Legebiltzarra	31
1.2.2. Batzar Nagusiak	47
1.2.3. Udala	48
1.3. Ekintza Politikoa	54
1.3.1. Alderdi Politikoak	54
1.4. Emakumeen errealitate politikoaren beste zenbait alderdi	58
ERASKINA	63
BIBLIOGRAFIA	71

TAULEN AURKIBIDEA

A) TESTUA

	Orr.
1.1. Emakumeen presentzia Eusko Jaurlaritzako goi karguetan, 1987-1991	23
1.2. Emakumeen presentzia Eusko Jaurlaritzako goi karguetan (1992)	24
1.3. Emakumeen proportzioa E.E.E.ko kide diren Estatueta Gobernuetan, 1987an	26
1.4. Emakumeen partaidetza Foru Aldundietan, karguen arabera, 1991n.	28
1.5. Emakumeen proportzioa Udaletan, lurralde historikoen arabera, 1991n	29
1.6. Emakumeen partaidetza Toki Administrazioan (alkatesak), Autonomi Elkar-teen arabera. 1983-1987ko hauteskundeak	30
1.7. Emakume eta gizon hautatuak Eusko Legebiltzarrean 1986 eta 1990eko hauteskundeen ondorioz, alderdi politikoen arabera	31
1.8. Emakumeen eta gizonen portzentaiak Legegintzaldi bakoitzeko Ganbaretan: Kongresuan, Senatuan eta Eusko Legebiltzarrean	32
1.9. Emakumeen proportzioa E.E.E.ko kide diren Estatueta Parlamentuetan, 1987an	32
1.10. Emakumeen partaidetza Autonomietako Parlamentuetan, Elkar- te Autono- moen arabera (1986-1991)	33
1.11.a) Emakumeen eta gizonen partaidetza Eusko Legebiltzarrerako 1986ko hau- teskundeetako hautagai zerrendetan	35
1.11.b) Emakumeen eta gizonen partaidetza Eusko Legebiltzarrerako 1990eko hauteskundeetako hautagai zerrendetan	36
1.12. Emakumeen partaidetza 1986 eta 1989ko hauteskunde orokorretara aur- keztu ziren alderdi eta hauteskunde-koalizio guztien hautagai zerrendetan	36
1.13. Emakumeen presentzia Kongresurako 1986 eta 1989ko hauteskunde oro- korretako hautagai zerrendetan, Elkar- te Autonomoen arabera	38
1.14. Emakumeen partaidetza Diputatu Kongresurako hauteskundeetako hauta- gai zerrendetan, lurralde historikoen arabera, 1989an	39
1.15. Emakumeen partaidetza Eusko Legebiltzarrerako 1986 eta 1990eko hau- teskundeetako hautagai zerrendetan	39
1.16.a) Emakumeen eta gizonen partaidetza Eusko Legebiltzarrerako Arabako lu- rralde historikoko alderdi politikoei aurkeztutako hautagai zerrendetan 1986an	40
1.16.b) Emakumeen eta gizonen partaidetza Eusko Legebiltzarrerako Arabako lu- rralde historikoko alderdi politikoei aurkeztutako hautagai zerrendetan 1990ean	40
1.17.a) Emakumeen eta gizonen partaidetza Eusko Legebiltzarrerako Bizkaiko lu- rralde historikoko alderdi politikoei aurkeztutako hautagai zerrendetan 1986an	41
1.17.b) Emakumeen eta gizonen partaidetza Eusko Legebiltzarrerako Bizkaiko lu- rralde historikoko alderdi politikoei aurkeztutako hautagai zerrendetan 1990ean	41


1.18.a)	Emakumeen eta gizonen partaidetza Eusko Legebiltzarrerako Gipuzkoako lurralde historikoko alderdi politikoek aurkeztutako hautagai zerrendetan 1986an	42
1.18.b)	Emakumeen eta gizonen partaidetza Eusko Legebiltzarrerako Gipuzkoako lurralde historikoko alderdi politikoek aurkeztutako hautagai zerrendetan 1990ean	42
1.19.a)	Emakumeek izandako tokia Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetako hautagai zerrendetan, alderdi politikoek eta lurralde historikoen arabera, 1986an	43
1.19.b)	Emakumeek izandako tokia Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetako hautagai zerrendetan, alderdi politikoek eta lurralde historikoen arabera, 1990ean	45
1.20.	Emakumeen partaidetza lurralde historiko bakoitzeko Batzar Nagusietan, alderdi politikoek arabera, 1991n	47
1.21.	Emakumeen presentza Zinegotzigoetan, lurralde historikoen arabera, 1991n	48
1.22.	Emakumeen presentziaren konparaketa lurralde historikoetako hiriburuetako Zinegotzigoetan, alderdi politikoek arabera, 1987 eta 1991n	49
1.23.	Emakumeen presentzia Zinegotzigoetan, lurralde historikoen eta alderdi politikoek arabera, 1991n	50
1.24.	Emakumeak 1991ko udal hauteskundeetako hautagai zerrendetan. Kopurua eta batezbeste zein tokitan agertzen ziren, alderdi politikoek arabera ...	51
1.25.	Emakumezko hautagairik aurkeztu ez zuten udalen kopurua eta horien portzentaia, alderdi politikoek arabera, 1991n	51
1.26.	Emakumeak zenbatgarren agertzen ziren 1991ko hauteskundeetako zerrendetan	52
1.27.	Emakumeen kopurua eta proportzioa 1991ko udal hauteskundeetako emakume hautagaiekin alderatuta, alderdi politikoek arabera	53
1.28.	Emakumeen presentzia alderdi politikoetako exekutibetan: EA, EAJ-PNV, EE, HB, PSE-PSOE eta UAn	54
1.29.	Emakumeen partaidetza alderdi politikoetako afiliazioan, 1991n	57

B) ERASKINA

A.1.	Emakumeen proportzioa Kongresuan, Legegintzaldi ezberdinetan, alderdi politiko edo hauteskunde-koalizioen arabera	65
A.2.	Emakumeen proportzioa Senatuan, alderdi politiko eta talde parlamentarioen arabera	66
A.3.	Emakumeen presentzia Eusko Legebiltzarreko batzordeetan, IV. Legegintzaldian	67
A.4.a)	Emakume/gizonezko parlamentari hautatuak Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, lurralde historikoen arabera, 1986an	68
A.4.b)	Emakume/gizonezko parlamentari hautatuak Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, lurralde historikoen arabera, 1990ean	69
A.5.	Emakumeek 1987 eta 1991ko Batzar Nagusietan izandako partaidetzaren konparaketa, alderdi politikoek arabera	70

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

	<u>Orr.</u>
1. Emakumeen proportzioa E.E.E.ko Gobernu batzuetan (1987)	27
2. Emakumezko parlamentari kopuruaren bilakaera, ehunekotan, lurralde historikoen arabera	34
3. Emakumeen hautagai zerrenden konparaketa, Espainiako Senatu/Kongresua/Eusko Legebiltzarra (%)	37
4. Udaletako emakume hautetsien proportzioa, 1991n	53



AURKEZPENA

Euskal Autonomi Elkarteko emakumeentzako Ekintza Positiborako 1991-1994 planean jasotako helburuetako bat emakumeek gizartean eta politikan parte hartze handiagoa izan dezaten bultzatzea da. Izan ere, demokrazian oinarritutako sistema batean gizon eta emakumeen arteko oreka ziurtatu behar da erabaki publiko eta politikoak hartzeko; eta, horretarako, erabakiak hartzen direnean biek aktiboki ihardun beharko dute. Hori da bien arteko benetako berdintasuna lortzeko bide bakarra, oraindik ere bide luzea azterketa honetan ikusten denez.


Gizarteko hainbat esparrutan, politikan eta erakundeetan ere bai, emakumeek aurrerapausoak eman dituztela onartu behar bada ere, agintaritzako guneetan oraindik emakume gutxi ageri da, horietako batean ere ez baitira %20a izatera iristen.

Garrantzi handiko lanpostuak eta ondasunak administratzearekin zerikusia dutenak, gehienetan, gizonek betetzen dituzte eta emakumeak, berriz, gizartean emakumeen eginbehartzat jotako lanpostuetan ari dira: osasunaren arloan, zerbitzuetan, kulturean, eta abarretan.

Politikaren arloa batez ere gizonen esparrua da oraindik ere; lehengoan dirau erantzukizun publikoak gizonen esku eta pribatuak emakumeenetan uzten dituen betidaniko banaketak.

Gure demokraziak egindako bide laburrean oso astiro goaz aurrera eta hauteskunderaz hauteskunde gero eta emakume gehiago ageri bada ere zerrendetan, Legebiltzarrean ordezkariarik ez duten alderdietan gertatu da hori. Ordezkaritza dutenetan, parte hartzea txikiagoa da eta, gainera, zerrendan dauden lekuan egonda, zaila da hautatuak izatea.

Gaur egungo politikan oreka handiago egongo balitz, gizarteak orokorrean dituen nahiak eta beharrianak hobeto aztertu eta erabakiak hartzean bestelako ideia, balore eta jarrera batzuk izango lirateke kontuan.

A handwritten signature in blue ink, reading 'Txaro Arteaga'. The signature is fluid and cursive, with a long horizontal stroke extending to the right.

Txaro Arteaga Ansa

EMAKUNDE / Emakumearen
Euskal Erakundeko Zuzendaria



SARRERA

Azterlan honetan hipotesi hau hartzen dugu abiapuntutzat, hots, dikotomia sozial bat dagoela jeneroan oinarritua, gizartea sexuen arabera banatzen duena. Gizarte mota horretan gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna botere harremanen ondorioa da, batez ere sexuari lotutako banaketan oinarritua.

Gizartearen egitura horretan politika agertzen zaigu gainegitura sozialaren elementu gisa, bertan, botere harremanen mundua islatzen da eta gizonezkoen esparrua betirakotzeko joerak dira oraino ere.

Gai honetaz idatzi dutenek eginiko planteamendu ezberdinetan bat datoz honako hau azaltzen dutenean, hau da, jenero-sistema modernoak politika gunea maskulinizatzen duela botere hori erabiltzen den arloetan, eta emakumeen partaidetza mugatu egiten duela. Alde horretatik, emakumeen egoerari buruzko zenbait ikuspegik baieztatzen dute haien egoera aldatu dela, baina aldaketa horiek ez dira aski izan emakumeak politikan kopuru itxurosoan sarrarazteko. Emakumeen egoeraren gaineko gogoeta horiek inolako eragozpenik gabe Euskal Herriko errealitatera ekar ditzakegu, eta horixe egiten dugu, hain zuzen, ondoko orrialdeetan, eta bertan arazoaren alde bikoitza argi eta garbi azalduko da.

a) Emakumeen partaidetza aldiro-aldiro gehituz doa, nahiz eta oraindik ere botere organoetan emakume gutxi dagoen.

b) Politikako partaidetza hori ez da behinere kultur mundutik kanpoko izaten, eta horren garapenak zerikusi handia izango du emakumeak bizitza kulturalera beste guneetan sartzearekin. Garrantzi handiko alderdia da hezkuntzarako aukera berdintasuna izatea, egungo bizitza unibertsitarioan ikus daitekeenez. Beste bat izango litzateke emakumeek beren pentsamoldea aldatzea eta edozein motatako ihardueran aritzeko duten ahalmenean konfidantza izatea. Emakumeak botere politikoaren mailetan, aitzinapen kuantitatibo nola kualitatiboan, gora egin ondoren, agintari politikoak (gizonak baitira gehienak) pentsatzen hasiak dira dagoeneko emakumeen presentzia beharrezko errealitate bat dela.

Ondotik garatzen den azterlan honen bidez emakumeek arlo politikoan duten presentzia agertu nahi da. Horretarako, maila ezberdinak aztertu dira, haien partaidetza kategorizatze moduan, estrato ezberdinak ezarri eta behatuz nola aldatzen den emakumearen egoera maila ezberdin horien arabera, eta erreferentziako botere motaren analisiaren arabera.

Esparru politikoan burutu den estratifikazioa entitate politiko bakoitzak boterearekin dituen harremanetan oinarritzen da, hau da, kontuan hartu da botere gradu eta mota ezberdinak daukela, eta maila horietako bakoitza azterketarako eremu bat dela. Eta hori guztia maila batzuetako eta besteetako partaidetza femeninoan diferentziarik dagoen ala ez behatzeko, kontuan hartuz, beti ere, azterlan honen azkeneko xedea: hipotesi honen frogapena, hots, emakumea bizitza politikara nola sartzen ari den ikustea kuantitatiboki adierazgarria izateaz gain (eremu publikoa) garrantzitsua ere badela emakumeak non dauden aztertzea, aipatu iharduera politikoetan hasten direnean.

Beraz, "Emakumeen partaidetza Euskadiko iharduera politikoan" izenburupean aurkeztzen den lan honek emakumeen partaidetza analizatzen du esparru ezberdinetan, botere politikoaren arlo adierazgarrienetan egituratzen delarik, hala nola:

- Exekutiboa.
- Legegilea.
- Ekintza politikoa.

Lanak arakatu nahi du zein den emakumeen partaidetza arlo horietako bakoitzean, abiapuntutzat Euskal Autonomi Elkartea hartuz eta eremu estatala nahiz europarrarekin alderatuz, hala Gobernuari dagokionean (Exekutiboa) nola Parlamentuei (Legegilea), eta apurka-apurka behe mailetako botereetara iraganez, adibidez Aldundiak, Udalak, etab.

Erabili den lan metodoa datu kuantitatiboen deskribapenean eta politikarekin zuzeneko lotura duten pertsonen iritzien analisisian oinarritu da.

Beste helburu bat da, maila orokorrean, gai bakoitzaren atzeranzko ikuspegi bat izatea, eta horretarako informazio bilketaren funtsezko abiapuntua izan da bi aldi ezberdinetako datuak eskuratzea.

Pentsa daitekeenez, datu homogenoak aurkitzea zaila izan da oso. Aurkezten direnak batez ere lehendik eginiko ikerketenak dira, bai eta erakunde ezberdinetatik bildutakoak ere.

Aipatzekoa da informazio eza handia dagoela, batik bat iraganeko denboretakoak, horregatik askotan ezinezkoa izan zaigu atzeranzko konparaketak egitea.

Gerok prestatutako tauletan alderdi politikoentzat jarritako hurrenkerari dagokionez, azpimarratu behar da datuak aurkeztu eta taulak erraztu beharrez hurrenkera alfabetikoa hobetsi dugula.

Era berean, Eusko Legebiltzarreko biltzarkide gizonezko eta emakumezkoen datuei dagokienez, bertan prestatutako tauletan eta gainerako tauletan agertutakoen artean desagokitasun bat azaltzen zaigu eta horren arrazioa honako hau da: lehenbiziko tauletan hauteskunde egin berrien ondoriozko emakumezko eta gizonezko hautetsiak agertzen direla eta gainontzekoetan, berriz, legegintzaldiko beste une batzuetan Legebiltzarrak izandako osaketa.

Halaber, argitu beharra dago “Europako Ekonomi Elkartea” hitza mantentzen dela, eta ez gaur egun indarrean dagoen “Europako Batasuna”, lehenengoa datuak bildu zireneko garaia hobeki datorkiolako.

Kontsultarako iturri nagusiak hauek izan ditugu: Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundea, Eustat, Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Alderdi Politikoak, Aldundiak, Udalak, Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Emakumeari buruzko Ikerketa Mintegia.

KONTSULTATUTAKO DOKUMENTAZIO ITURRIAK

- Eusko Legebiltzarra.
- Eusko Jaurlaritzako Lan Saila.
- Eusko Jaurlaritzako Arakatze Soziologikoen Kabinetea.
- Bizkaiko Foru Aldundia.
- Arabako Foru Aldundia.
- Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Gasteizko Udala.
- Bilboko Udala.
- Donostiako Udala.
- Eustat.
- Alderdi Politikoak:
 - EAJ-PNV
 - HB
 - UA
 - EE
 - EA
 - PSE-PSOE
 - PP
- E.H.A.A.
- Emakunde-ren Dokumentazio Zentroa.
- Emakumearen Euskal Erakunde-aren Dokumentazio Zentroa.
- Emakumeari buruzko Ikerketa Mintegiaren Dokumentazio Zentroa.
- U.P.V.-E.H.U.aren Dokumentazio Zentroa.
- Deustuko Unibertsitateko Liburutegia.

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO 1986 ETA 1990EKO HAUTESKUNDEETAN AURKEZTUTAKO HAUTAGAI ZERRENDAK ETA ALDERDI POLITIKOAK

1986

- Euskadiko Ezkerra (EE)
- Partido Socialista de Euskadi (PSE-PSOE)
- Partido Socialista de los Trabajadores (PST)
- Liga Komunista Iraultzailea (LKI)
- Herri Batasuna (HB)
- Centro Democrático y Social (CDS)
- Eusko Alkartasuna (EA)
- Coordinadora Socialista de Izquierdas (CSI)
- Coalición Popular-Partido Liberal (AP-PL)
- Euskadiko Mugimendu Komunista (EMK)
- Partido Comunista de Euskadi (PCE-EPK)
- Partido Obrero Socialista Internacional (POSI)
- Unidad Popular Republicana (UPR)
- Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco (EAJ-PNV)
- Izquierda Unida (IU)
- Partido Humanista (PH)

1990

- Partido Socialista de Euskadi (PSE-PSOE)
- Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco (EAJ-PNV)
- Unidad Alavesa (UA)
- Partido Socialista de los Trabajadores (PST)
- Herri Batasuna (HB)
- Partido Popular (PP)
- Liga Komunista Iraultzailea-Euzko Mugimendu Komunista (LKI-EMK)
- Centro Democrático y Social (CDS)
- Euskadiko Ezkerra (EE)
- Eusko Alkartasuna (EA)
- Izquierda Unida-Ezker Batua (IU-EB)
- Democracia Socialista (DS)
- Los Verdes Ecologistas (LVE)
- Partido Humanista (PH)
- Alianza por la República (AR)
- Agrupación Ruiz Mateos (ADE)
- Verdes de Euskalherria (EHB)
- Partido Comunista del Pueblo de Euskadi (EHAK-PCPE)
- Partido Comunista de España Marxista-Leninista (PCE.M-L)

1

**BOTERE
POLITIKOA**

EXEKUTIBOA

1.1

EUSKO JAURLARITZA. EUROPAKO GOBERNUAK

1.1.1

Hasierako gogoeta eginik, eta azkeneko bi Legegintzaldietan Eusko Jaurlaritzako goi karguen artean emakumeek duten presentzia maila kuantitatiboan kontrajartzean, zenbait gorabehera somatzen dira emakumeak erakunde exekutiboetan sartzeari dagokionez. Alde horretatik, eta taulan ikus daitekeenez, emakumearen jarraikako integrazioa ez da kasu guztietan gertatzen. Horrela, Eusko Jaurlaritzan, lehenik eta behin ezberdintasun nabaria aurki dezakegu, begibistan dagoena, kargu horiek betetzen dituzten emakume eta gizonen kopuruen artean; gaur egun goi karguetako % 15,6 baizik ez dago emakumeen esku. Izan ere, zifra hori arront azpitik dago emakumeek 1987an zituzten erantzukizun handiko postuekin alderatuz, orduan % 19 baitziren.

Hain zuzen ere, emakumeen presentzia proportzionala zuzendaritza postuetan murriztu egin da, eta horrela 1987an % 22,9 izatetik egungo Gobernuan % 17,2 izatera jaitsi dira.

1.1. TAULA. Emakumeen presentzia Eusko Jaurlaritzako goi karguetan, 1987-1991

	1987			1991		
	Guztira	Emakumeak	% Emakumeak	Guztira	Emakumeak	% Emakumeak
Sailburuak	13	1	7,6	15	1	6,7
Sailburuordeak	30	4	13,3	41	6	14,6
Zuzendariak	83	19	22,9	116	20	17,2
GUZTIRA	126	24	19,0	172	27	15,6

Iturria: Emakunde.

Nolanahi ere, beherakada hori ez da politikako arloan ematen den joera orokorra bailitzan hartu behar, zeren eta murriztapena ez baita Administrazio Publikoaren beste arloetan gertatu, gero frogatu ahal izango dugun bezala.

Emakumeen egoeraren analisi kuantitatiboa baino haratago joan nahian eta errealitatea eratzten duen errealitate sozialaren beste alderdi horietan sakontzeko ahaleginean, garrantzizkotzat jotzen da politikan aritzen diren emakumeen proportzioa ezezik baita zein kargu betetzen dituzten ere kontutan hartzea.

1.2. TAULA. Emakumeen presentzia Eusko Jaurlaritzako goi karguetan (1992)

EUSKO JAURLARITZAKO DATUAK, EMAKUMEEN PRESENTZIA ADIERAZTEN DUTENAK	KARGUAK GUZTIRA	EMAKUMEA KARGUDUNEN KOPURUA	EMAKUME KARGUDUNEN %
Lehendakaritza	13	2 Idazkari Nagusi, Sailburuorde mailarekin: Gizarte eta Erakundeen arteko Harremanetarako Idazkari Nagusia Hizkuntz Politikarako Idazkari Nagusia Zuzendari bat Azterlan eta Argibide Zuzendaria	33,30
Emakunde	2	Zuzendari Nagusi bat, Sailburuorde mailarekin Idazkari Nagusi bat, Zuzendari mailarekin	
	15		
1. Lehendakariordetza eta Ekonomi Gaietarako Saila	4	Zuzendari bat: Kabinete Zuzendaria	25
Industri eta Energi Saila	13	Sailburuorde bat: Hezkuntza Sailburuordea	7,6
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila	14	Sailburuorde bat: Hezkuntza Sailburuordea 2 Zuzendari: Kabinetge Teknikoaren Zuzendaria Hezkuntzaren Berrikuntzarako Zuzendaria	21,4
Lehendakaritza, Araubide Juridiko eta Auto-nomi Garapenerako Saila	16	3 Zuzendari: Zerbitzu Zuzendaria Funtzio Publikoaren Zuzendaria Administrazioarekiko Zuzendaria	18,8
Justizi Saila	7	Sailburuorde bat: Justizi Sailburuordea Zuzendari bat: Giza Eskubideetarako Zuzendaria	28,6
Lan eta Gizarte Segurantza Saila	11	Zuzendari bat: Azterlan eta Araubide Juridikorako Zuzendaria	9,1
Kultura Saila	9	3 Zuzendari: Laguntza Kabineteko Zuzendaria Historia eta Arte Ondarearen Zuzendaria Zerbitzu Zuzendaria	33,3
Ekonomi, Plangintza eta Ingurugiro Saila	13	Zuzendari bat: Plangintza eta Obra Hidraulikoen Zuzendaria	7,7
Garraio eta Herri-lan Saila	8	Zuzendari bat: Plangintza eta Obra Hidraulikoen Zuzendaria	12,5
Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Saila	8	Sailburu bat Sailburuorde bat: Merkataritza eta Kontsumo Sailburuordea 2 Zuzendari: Kanpo Merkataritza Sustatzeko eta Ekonomi Lankidetzarako Zuzendaria Zerbitzu Zuzendaria	50

Iturria: Bertan prestatutakoa, Emakunde-k emandako datuetan oinarrituz.

Emakumeen eskutan dauden Kontseilaritzak, Kontseilariordetzak eta Zuzendaritzak astiro-astiro aztertuz gero, oharteman daiteke, emakume horiek etxeko giroa utzi eta arlo publikora jo arren, kasu honetan politikora, gehienetan ematasun ezaugarria duen eginkizun sozialarekin erlazio-natutako karguetara doazela, eta bitartean aitorten gehiago duten eta aberastasunarekin lotua-go dauden goi karguak gizonezkoek betetzen dituztela Eusko Jaurlaritzan. Emakumeek bete-tzen dituzten lanpostuetan oinarrituz, baieztatu daiteke, hasieran planteatzen genuen banaketa sozialean jeneroaren araberrako hierarkia eta bereizkeria dagoela, bada, emakumeek betetzen dituzten postu gehienak gizonezkoenak baino balio apalagokoak kontsideratzen baitira; era be-rean, sexuaren hierarkia bat islatuko litzateke, izan ere bigarren mailako postuak direla-eta (fe-meninoak), emakumeak gizonezkoenak baino botere eta balio gutxiagoko postuetan egotera beharturik aurkitzen dira.

Edozein modutan ere, aurrerago frogatu ahal izango denez, prozesu hori bera errepikatzen da Europan ere. Horrela, ondoren datorren taulan, 1987an, E.E.E.ko kide diren estatuetakoko datuak ematen dira, zenbat emakume dituzten Gobernuan eta haiek zein Karteratan aritzen diren. Konparazioa egiteko, aldi horretako Eusko Jaurlaritzaren datuak hartzen dira eta Sailburuen ka-tegoriak Ministroekin alderatzen.

Premisa hauekin, ondoren aurkezten den 1.3 taulan ikus daiteke zein toki betetzen duten ema-kumeek E.E.E.ko estatuetan eta Euskal Autonomi Elkartean.

1.3. TAULA. Emakumeen proportzioa E.E.E.ko kide diren Estatuetakoko Gobernuetan, 1987an

EMAKUME KOPURUA GOBERNUAN ETA BETETZEN DITUZTEN KARTERAK					Emakumeek bo- toa emateko es- kubidea noiz lortu zuten
	Guztira	Emakumeak	% E/G	Emakumeek betetzen dituzten karterak	
Alemania	19	2	10,5	Barne Arazotarako Ministro bat Gazteria eta Famili Ministro bat	1918
Belgika	—	4	—	Herrilaneke Ministro bat Estatuko 3 Idazkari	1948
Danimarka	22	3	13,6	Gizarte Gaietarako Ministro bat Kultoko Ministro bat Osasun Ministro bat	1915
España	17	2	11,8	Gizarte Gaietarako Ministro bat Gobernuaren Ministro Bozeramale bat	1931
Frantzia	14	6	42,8	Gizarte Gaietarako Ministro bat 3 Ministro Delegatu 2 Estatuko 3 Idazkari	1944
Grezia	22	1	4,5	Kultura Ministro bat	1952
Herbehereak	13	6	46,1	Lehen Ministro bat Herrilan eta Obra Hidraulikoen Ministro bat Estatuko 4 Idazkari	1919
Irlanda	—	—	—		1922
Italia	32	2	6,2	"Kultur Ondasunen" Ministro bat Gizarte Gaietarako Ministro bat	1945
Luxemburgo	—	—	—		1919
Portugal	—	—	—		1976
Erresuma Batua	—	4	—	Lehen Ministro bat Estatuko 3 Ministro	1928
GUZTIRA	139	30	15,8 (*)		
E.A.E.	43	5	11,6 n(*)	Sailburu bat 4 Sailburuorde	1931

Iturria: Emakumea Espainian. Egoera soziala. Politika. 1990. Eusko Jaurlaritzak emandako datuak.

(*) Kalkulu portzentual honetan ez dira Belgikako 4 ordezkariak eta Erresuma Batuko beste 4ak sartu, zenbat kide dituen horietako gobernu bakoitzak jakin ezean.

1. GRAFIKOA. Emakumeen proportzioa E.E.E.ko Gobernu batzuetan (1987)



* E.E.E.ko gainerako Estatuetak daturik ez dago.

Dagoen desberdintasuna frogatzen da berriro ere, eta Estatu batzuetako gertaera bakarti eta berezia ez dela antzeman daiteke, alderantziz baizik, Europako Elkarteko Estatu kide guzti-guztietan berdin gertatzen dela, eta hala ere aipatzekoa da Estatu batzuetan beste batzuetan baino nabariagoa dela desberdintasun hori.

Aztertutik diren Gobernu europarretan, emakumezko kideak gizonezkoak baino gutxiago dira, oro har % 16 inguru. Gobernuan emakume gehien dituztenak Frantzia eta Herbehereak dira, ia Ministerioen erdira iristen direlarik, % 43 eta % 46, hurrenez hurren. Datuak ditugun herrietan zifra horietatik urrun daude, eta Danimarka da hurrengoa, % 14, gero Espainia legoke, % 12, Alemania % 11 (artean batasuna egin gabe zegoenean). Europako ranking horretan Euskadi segidan egongo litzateke, Italia eta Greziaren gainetik. Denetatik azkeneko honek dauka Gobernuak emakumeen protzentai kuota apalena.

Euskal Autonomi Elkartea ere (EAE) gobernuak emakume gutxien dituztenen artean dago, Sailburu bakar batekin.

Betetzen diren Karterak aztertuz gero, nabari da nola kasu gehienetan ezaugarri maskulinoa duen eremu batean egoteaz gainera, politikan alegia, emakumeek betetzen dituzten tokiak beste ezerekin baino gehiago sozialki eginkizun femeninoztat hartzen direnekin daudela lotuak. Horixe besterik ez du frogatzen Europako Estatu gehienetan emakumeek datxezkien Karterak hauekin uztarturik egoteak: Gazteria, Familia, Gizarte Gaiak, Osasuna, Kultura..., eta horien artean bi baizik ez dira ezaugarri maskulinoa dutenak, Herrilaneak bata eta Garraioetakoak besteak. Dena den, interesgarritzat jotzen da Erresuma Batuak eta Herbehereak Lehen Ministrotzat emakume bana izatea.

Elkarteko bizitza politikan aritzen diren emakumeek egindako adierazpenen arabera baikor azaltzen dira emakumeek Gobernuetan duten presentziari dagokionean, eta EAEko nahiz Estatu espainiarreko egoera garapen unean dagoela diote. Jakinean daude Europakin alderatuta oraindik atzeratuxe gaudela, baina itxaropide handiz uste dute egoera aldatuz joango dela Europar integratu ahala. EAEko eta Estatu Espainiarreko egoera Europako beste Estatukoenarekin kontrastatzen hasterakoan gogoan izan behar dugu eboluzioa noiztik hasi zen. Hemen azkeneko urteotan baino ez gara hasi, beste tokietan aspaldi hasiak ziren arren.

FORU ALDUNDIAK

1.1.2

Foru Diputazioei dagokienez, hemen ere alde nabaria da gizonen eta emakumeen partaidetza. Elkarteko Diputatuen % 9,4 besterik ez dira emakumeak; Gipuzkoan % 18,2, Araban % 11,1 eta Bizkaian ez dago emakumezko Diputaturik bat ere.

1.4. TAULA. Emakumeen partaidetza Foru Aldundietan, karguen arabera, 1991n

DIPUTATUAK

Lurralde Historikoak	Guztira	Emakumeak	% Emakumeak
Araba	9	1	11,1 (Lehendakaritza eta Kontseilaritzako Idazkari-tza)
Bizkaia	12	0	
Gipuzkoa	11	2	18,2 (Gizarte Zerbitzuak, Kultura eta Turismoa)
EAE GUZTIRA	32	3	9,4

Iturria: Emakunde.

ZUZENDARIAK

Lurralde Historikoak	Guztira	Emakumeak	% Emakumeak
Araba	14	1	7,1 (Funtzio Publikoa)
Bizkaia (*)	27	2	7,4 (Mendiak eta Nekazaritzaren Sustapena, Funtzio Publikoa)
Gipuzkoa	17	3	17,6 (Euskararen Normalkuntza, Kultura eta Turismoa, Gizarte Zerbitzuko Departamentuko Kabinete Teknikoa)
EAE GUZTIRA	31	4	

Iturria: Emakunde.

(*) Bizkaiko datuak 1992koak dira.

Zuzendaritzetan egoera berdintsua da; horrela, % 17,6 emakumezkoak dira Gipuzkoan, % 7,1 Araban eta Bizkaian % 7,4.

Zenbaki horretaz landa -Aldundietako maskulinizatzeko gradu handia erakusten duena, bestalde emakumeek betetzen duten postuen analisiaren bitartez ikusten ahal dugu postu horiek ematasun ezaugarriko eginkizun sozialekin lotzen direla; datu horiek berretsi egiten dute, beraz, lehen azaldutako errealitate sozial hori, hain zuzen ere emakumezkoek nozitzen duten bereizkeria alde batetik eta sexua oinarri duen hierarkia bestetik.

UDALAK

1.1.3

Udalei buruzko datuetan, zeinetan botere exekutiboaren adierazletzat ordezkari nagusia hartzen baita, esan nahi baita alkatea/alkatesa, honako hau ikusten ahal dugu: lehenik eta behin, oso portzentaia txikian daudela emakumeak Alkatetzetan, batez beste % 9,3 Euskal Autonomi Elkartean, % 9,8 Araban, % 6,4 Bizkaian eta % 10,3 Gipuzkoan.

1.5. TAULA. Emakumeen proportzioa Udaletan, lurralde historikoen arabera, 1991n

ALKATE/ALKATESAK

Lurralde Historikoak	Guztira	Emakumeak	% Emakumeak
Araba	51	51	9,8
Bizkaia	109	7	6,4
Gipuzkoa	87	9	10,3
EAE GUZTIRA	247	21	9,3

Iturria: Emakunde.

Berririo ere argi asko nabari da gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasuna politikako goiko gailurretan; baina hori gure gizartean dagoen sexuan oinarritutako hierarkia sozialaren ondorioa baino ez da, gizartea sexuaren arabera ordenatzen duen hierarkia, gizonen emakumeei baino botere gehiago ematen diena. Hori baieztatzen digute, behintzat, politikan emakumeek duten presentziari buruzko datuek.

Dena den, eta gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasun horiek gorabehera, azkeneko hauteskundeetan emakumeen portzentaiaren gorakada hauteman da, kasu batzuetan bikoiztu ere egin delarik emakumeen eskuko alkatetzak. Horrela, Euskal Autonomi Elkartean, 1983an 2,6ko ordezkartza izatetik 1987an 4,3 eta 1991n 9,3 izatera iritsi da.

Estatu osoa kontatuz gero eta 1987ko datuek dioskutenez alkatesen proportzioan EAEk hirugarren postuan dago sailkapenean Madril eta Kantabriaren atzetik.

1.6. TAULA. Emakumeen partaidetza Toki Administrazioan (alkatesak) Elkarte Autonomoen arabera. 1983-1987ko hauteskundeak

	KORPORAZIO KOPURUA		ALKATESAK		GUZTIRAKOAREN ARABERAKO EMAKUMEEN %KOA	
	1983	1987	1983	1987	1983	1987
Andaluzia	764	751	16	16	2,1	2,1
Aragoi	727	707	13	18	1,8	2,5
Asturias	78	72	3	3	3,8	4,2
Baleareak	66	62	1	1	1,5	1,6
Kanariak	87	81	1	1	1,1	1,2
Kantabria	102	98	4	5	3,9	5,1
Gaztela-Leon	2.250	2.147	51	84	2,3	3,9
Gaztela-Mantxa	915	903	19	34	2,1	3,8
Katalunia	940	924	15	25	1,6	2,7
Extremadura	380	377	12	14	3,2	3,7
Galizia	312	295	6	8	1,9	2,7
Madril	178	173	4	8	2,2	4,6
Murtzia	45	43	4	1	8,9	2,3
Nafarroa	264	208	1	8	0,4	3,8
Errioxa	174	162	5	6	2,9	3,7
Valentziako Komunitatea	534	505	3	7	0,6	1,4
C.A. Euskadi	235	231	6	10	2,6	4,3

Iturria: Emakumea zenbakitan. Emakumearen Erakundea. 1991.

Laburbilduz, orain arte aztertutako datuek berresten digutenez, euskal exekutiboetako organo ezberdinetan emakumeen presentzia oraindik hagitz mugatua da, exekuzio organo bakoitzean bilakaera hori ezberdina delarik, baina ikuspegi orokorrean egungo egoera hau positibotzat har daiteke. Kargu horiek betetzen dituzten emakume kopuruaren eta gizon kopuruaren arteko diferentzia handiegia da oraindik, tartean amildegi bat bailegoen. Datu adierazgarri gisa oroitaraz daiteke, oraindano aztertu direneko ezein botere organotan, emakumeak ez direla % 20a iristen, eta alderantziz, badirela erakunde batzuk, esaterako Bizkaiko Foru Aldundia, emakumezko Diputatu bakarrik ere ez dutenak. Zenbait Toki Administrazioetan ere halako erdeinuren bat edo, somatzen da alkatesa onartzeko, izan ere hiru lurraldeetako batean ere ez baitu alkatesen kopuruak % 10a gainditzen.

Nolanahi ere, euskal emakumeen errealitate hau ez dago hain urrun beste tokietan gertatzen denarekin alderatuta, demagun Espainiako edo E.E.E.ko beste Estatukoekin, eta hemengo ordezkariak konparatu diren beste tokietakoa baino hobea da, adibidez, Italia eta Greziakoa baino.

Orain arte aurkeztutako datuek erakusten digutenez, emakumeek boterera heltzen direnean, Kartera, Bulego, eta abarrei, ematasun izaera somatzen zaie eta tradizioz emakumeek burutu ohi dituzten eginkizun sozialei datxekie, hala nola Hezkuntza, Gizarte Gaiak, Osasuna, Gazteria, Kultura, etab.

LEGE GILEA

1.2

EUSKO LEGE BILTZARRA

1.2.1

Azterlana zein eremu geografikoan burutu den aintzakotzat hartu eta euskal emakumeek ganbara legegile ezberdinetan betetzen duten tokia aztertuz gero, Eusko Legebiltzarrari eman zaio lehentasuna azterketa honetan.

Illo horretatik, 1986an eta 1990ean ganbara parlamentarioaren osaketari dagozkion datuen aurrean (1.7 taula) nabari da emakumezkoen presentziak gora egin duela ausarki denboraldi horretan, 8 ordezkari izatetik 13 izatera pasatu baita. Horren arabera 1990ean emakumeak aulki guztien % 17,3 ziren.

1.7. TAULA. Emakume eta gizon hautatuak Eusko Legebiltzarrean 1986 eta 1990eko hauteskundeen ondorioz, alderdi politikoen arabera

	1986						1990					
	EMAKUMEAK		GIZONAK		GUZTIRA		EMAKUMEAK		GIZONAK		GUZTIRA	
	Osotara	%	Osotara	%	Osotara	%	Osotara	%	Osotara	%	Osotara	%
EA	4	44,4	9	55,6	13	100	1	12,5	8	87,5	9	100
EAJ-PNV	0	0	17	100	17	100	5	29,4	17	70,6	22	100
EE	1	12,5	8	87,5	9	100	1	20	5	80	6	100
GPM	0	0	4	100	4	100	2	66,6	1	33,3	3	100
HB	1	8,3	12	91,7	13	100	2	18,2	11	81,8	13	100
PP	0	0	0	0	0	100	0	0	6	100	6	100
PSE-PSOE	2	11,8	17	88,2	19	100	2	14,3	14	87,7	16	100
GUZTIRA	8	10,7	67	89,3	75	100	13	17,3	62	82,7	75	100

Iturria: Bertan prestatua, Eusko Legebiltzarrak emandako datuetan oinarrituz

* Ez zuen hauteskunde-talderik osatzen.

Hazkuntza izan bada ere, begibistan dago emakumeen eta gizonen partaidetzan zein aldea dagoen, beraz, barruti hori, Eusko Legebiltzarra alegia, maskulinizazio maila handikoa da oraino ere.

Eusko Legebiltzarreko ordezkariak buruzko datuok Espainiako Kongresu nahiz Senatukoekin alderatzen baditugu konturatuko gara hemengoak dela emakumezko ordezkari gehien dituen elkarre autonomoa. Horrela, 1986an Eusko Legebiltzarrean parlamentariak % 10,7 emakumezkoak ziren, Senatuan ordea, % 5,6 baizik ez eta Diputatuen Kongresuan % 6,6. Azkeneko hauteskundeetan Eusko Legebiltzarreko emakume parlamentariak presentzia, arestian esan den bezala, % 17,3ra iritsi da, Senatuan eta Kongresuan portzentai apalagoak dituztelarik, % 11,2 eta 13,1. (Ikus A.1 eta A.2 Taulak eraskinean).

1.8. TAULA. Emakumen eta gizasimeen portzentaiak Legegintzaldi bakoitzeko Ganbaretan: Kongresuan, Senatuan eta Eusko Legebiltzarrean

		1980	1984	1986	1990
Eusko Legebiltzarra		6,7	8	10,7	17,3
	1977	1979	1982	1986	1989
Kongresua	6,3	6	6,3	6,6	13,1
Senatua	2,4	2,9	4,3	5,6	11,2

Emakumeak botere publikoaren organoetan sartze horren bilakaeran interesgarria da eman den aurrerakada kuantitatiboa, batez ere azken Legegintzaldian. Senatuan eta Kongresuan emakumeen gehikuntza 1986a arte astiro-astiro joan zen, Kongresuan batik bat, non emakumeen portzentaia beti % 6 ingurukoa izan baitzen, 1989-93 Legegintzaldira arte. Data horretatik aurrera eta azken Legegintzaldiarekin batean, emakumeak lehen bi halako dira, % 13,1era iritsi baitira.

Senatuan antzeko egoera dago. Legegintzaldi bakoitzean, 1977tik 1986ra bitarte, portzentaien gehikuntza % 1ekoa izan zen, % 5,6ra iritsi arte; 1989an berriz, gorakada bortitzaren ondorioz % 11,2 lortu zen.

EEEko parlamentuen egoera euskal eremuaren eta espainiarraren parekoa da. (1.9 Taulan agiri den bezala).

1.9. TAULA. Emakumeen proportzioa E.E.E.ko kide diren Estatuetak Parlamentuetan, 1987an

BEHE-GANBARAKO PARLAMENTUA (*)

	Guztira	Emakumeak	% E/G
Alemana	519	80	15,4
Belgika	212	16	7,5
Danimarka	179	52	29
Espainia	345	22	6,4
Frantzia	577	37	6,4
Grezia	300	13	4,3
Herbehereak	150	28	18,7
Irlanda	166	14	8,4
Italia	630	81	12,8
Luxenburgo	64	8	14,6
Portugal	250	19	7,6
Erresuma Batua	650	41	6,3
GUZTIRA	4.117	418	11,3
Euskadi	75	7	9,3

Iturria: Emakumea Espainian. Egoera soziala, Politika. Emakumearen Erakundea. Madril 1990. Eusko Jaurlaritzak emandako datuak.

Erreferentzi puntutzat EEEen emakumeak duen partaidetza politikoa hartuz gero, Eusko Jaur-laritzaren eta EEE osatzen duten Estatuetakako Parlamentuen artean egindako alderaketak erakus-ten zigun 1987an Danimarka zela Behe-Ganbaran emakumezko parlamentari gehien zituen-a, % 29; gainerakoak urrun samar gelditzen ziren, eta Greziako Parlamentua zen emakume gu- txien zituen-a.

Sailkapen europar horretan Euskadi jarriz gero, seigarren postuan zegoen, Erresuma Batua, Belgika, Frantzia eta are Estatu espainiarra baino aurrerago. Hala ere, EEEko Parlamentuetan emakumezkoen portzentaia % 11,3 zen bitartean, gu horren azpitik geunden.

Estatua osatzen duten Elkarte Autonomoetako 1986 eta 1991ko datuak konparatuz gero (1.10 taula), ikusten dugu Euskal Autonomi Elkarte emakumezko parlamentariz hobekien hornituta- ko elkarte autonomoen artean dagoela. Horrela, Legegintzaldi honetan hirugarren postuan dago, aurretik Madril, % 23,8 eta Errioxa, % 21,2, dituelarik.

1.10. TAULA. Emakumeen partaidetza Autonomietako Parlamentuetan, Elkarte Autono- moen arabera (1986-1991)

	PARLAMENTUA GUZTIRA		EMAKUMEAK		E/GUZTIRA %	
	1986	1991	1986	1991	1986	1991
Andaluzia (1990-94)	109	109	5	14	4,6	12,8
Aragoi	66	67	4	5	6,1	7,5
Asturias	45	45	4	9	8,9	20
Baleareak	54	59	3	10	5,6	16,9
Kanariak	60	60	1	4	1,7	6,7
Kantabria	35	39	3	3	8,6	7,7
Gaztela-Leon	84	84	3	8	3,6	9,5
Gaztela-Mantza	44	47	1	9	2,3	19,1
Katalunia (1988-92)	135	135	12	15	8,9	11,1
Estremadura	65	65	3	10	4,6	15,4
Galizia (1989-93)	71	75	1	10	1,4	13,3
Madril	94	101	12	24	12,8	23,8
Murtzia	43	45	2	5	4,6	11,1
Nafarroa	50	50	1	7	2	14
Errioxa	35	33	4	7	11,4	21,2
Valentziako Komunitatea	89	89	6	12	6,7	13,5
Euskadi (1990-94)	75	75	7	15	9,3	20
GUZTIRA	1.154	1.178	74	165	6,4	14

Iturria: Emakumea Espainian. Egoera soziala. Politika. Emakumearen Erakundea. Madril 1990.

Datu hauen azterketak bide ematen du Elkarte Autonomoetan emakumeen presentziak gora egin duela frogatzeko, hala eta guztiz ere, partaidetza datu hauek ikusiz, konturatzen gara bo- tere politikoa argi eta garbi gizonen eskutan dagoela oraino ere.


Edozein modutan ere, lehen aipatu den bezala, organo legegileetan emakumeen presentzia, handiagoa nahiz txikiagoa, jasotzeak garrantzirik baldin badu ere, are eta handiagoa du boterea erdiestean betetzen duten tokiak. Alde horretatik, Legegintzaldi honetako Eusko Legebiltzarra

osatzen duten Batzordeak aintzat hartzen baditugu (Eraskineko A.3 taula), ikusten ahal dugu izaeraz "femeninoenak" diren Batzordeetan emakumen presentzia nabaria dela, adibidez, Hezkuntza eta Kultura % 41,2, eta orobat Lan eta Osasunean, Drogamenpekotasunean % 23,5 eta Giza Eskubidean % 17,6; antzeko portzentaia aurkitzen ditugu tradizioz maskulinitzat hartu diren batzordeetan ere, hala nola Ekonomian, Ogasunean eta Aurrekontuetan, % 23,5 emakumezkoak, Erakundeak eta Barne Sailekoak, % 25ekin. Orain artekoak esanda, ondorio hau atera dugu: egia bada ere Eusko Legebiltzarrean gizon eta emakumeen artean dagoen ezberdintasuna begibistakoa dela, datu hauek eskutan ditugula baieztatu genezake bilakaera positibo bat gertatzen ari dela egoera orekatu baten aldera.

Datu hauek berak aztertzen baditugu kargu bakoitzean dauden emakumeen proportzioaren arabera, erakusten digute kargu guztietan arront behetik daudela kopuruari dagokionez, batez ere Lehendakarietzetan, hauetan % 15,4 baizik ez baitira emakumeak. Dena dela, Lehendakariordetzetan % 21,4 dira, Idazkaritzetan % 21,4 eta Mahaikidetzetan % 19,8. Portzentaia hauek goian aipatu bilakaera berresten digute.

Ondoko grafikoan emakumeek azken bi legegintzaldietan Eusko Legebiltzarrean izan duten presentzia azaltzen da, lurralde historikoen arabera.

2. GRAFIKOA. Emakumezko parlamentari kopuruaren bilakaera, ehunekotan, lurralde historikoen arabera



Ordezkaritza parlamentarioaren emakume eta gizonen kopuruan dagoen aldea hiru lurralde historikoetan eta alderdi politikoetan ere frogatzen da (Ikus eraskineko A.4 taula).

Orain arte Eusko Legebiltzarreko egoerari buruz azaldu diren datuak ordezkaritza parlamentaria mugatzen ziren, baina ez dugu ahortzi behar hain inportantea dela, edo gehiago agian, hauteskundeetarako prestatzen diren hautagai zerrendetako emakumeen presentzia aztertzea (1.11 taula), ezen azken finean zerrenda horiek baldintzatzen baitute ordezkaritza horretan izango diren emakumeen kopurua.

1.11.a) TAULA. Emakumeen eta gizonen partaidetza Eusko Legebiltzarrerako 1986ko hauteskundeetako hautagai zerrendetan

	EMAKUMEAK		GIZONAK		GUZTIRA	
	Osotara	%tan	Osotara	%tan	Osotara	%tan
AP-PL	24	32	51	68	75	100
CDS	22	29,3	53	70,6	75	100
CSI	22	29,3	53	70,6	75	100
EA	18	24	57	76	75	100
EE	19	25,3	56	74,6	75	100
EMK	31	41,3	44	58,6	75	100
HB	15	20	60	80	75	100
IU	12	16	63	84	75	100
LKI	20	26,6	55	73,3	75	100
PCE	12	16	63	84	75	100
PH	27	36	48	64	75	100
POSI	36	48	39	52	75	100
PST	31	41,3	44	58,6	75	100
UPR	22	29,3	53	70,6	75	100
EAJ-PNV	14	18,6	61	81,3	75	100
PSE-PSOE	10	13,3	65	86,6	75	100
GUZTIRA	335	27,9	865	72	1.200	100

Iturria: Bertan prestatutakoa, EHAAn argitaratutako zerrendak erabiliz.

1.11.b) TAULA. Emakumeen eta gizonen partaidetza Eusko Legebiltzarrerako 1990eko hauteskundeetako hautagai zerrendetan

	EMAKUMEAK		GIZONAK		GUZTIRA	
	Osotara	%tan	Osotara	%tan	Osotara	%tan
ADE	75	100	0	0	75	100
AR	22	29.3	53	70,6	75	100
CDS	24	32	51	68	75	100
DS	27	36	48	64	75	100
EA	17	22.6	58	77,3	75	100
EAJ-PNV	24	32	51	68	75	100
EE	24	32	51	68	75	100
EHB	30	40	45	60	75	100
HB	19	25.3	56	74,6	75	100
IU-EB	23	30.6	52	69,3	75	100
LKI-EMK	33	44	42	56	75	100
LVE	36	48	39	52	75	100
PCE (M-L)	7*	28	18	72	25	100
PCPE	8*	32	17	68	25	100
PH	27	36	48	64	75	100
PP	18	24	57	76	75	100
PST	32	42.6	43	57,3	75	100
UA	31	41.3	44	58,6	75	100
PSE-PSOE	17	22.6	58	77,3	75	100
GUZTIRA	494	37.2	831	62,7	1.325	100

Iturria: Bertan pretatutakoa, EHAAn argitaratutako zerrendetan oinarrituz.

Bi datu azpimarra genitzake: 1986an emakumeak % 27,9 ziren eta gizonezkoak % 72,1, eta 1990ean berriz % 37,3 emakumeak eta % 62,7 gizonezkoak. Hala ere, azterketaren gai diren urte horietan emakume hautagaiak gehitu egin arren, esparru politikoaren maskulinizazioa oraindik orain arras nabarmena da.

Alderdi ezberdinetako zerrendetan aurkezten ziren emakumeen kopurua aztertuz gero, ikus dezakegu 1986an 1990ean bezalaxe, parlamentuetan ordezkariarik gabeko alderdiek dituztela emakumeen indizerik handienak.


1.12 TAULA. Emakumeen partaidetza 1986 eta 1989ko hauteskunde orokorretara aurkeztu ziren alderdi eta hauteskunde-koalizio guztien hautagai zerrendetan

	KONGRESUA		SENATUA	
	1986	1989	1986	1989
Guztira	4.999	8.411	1.424	3.272
Emakumezko hautagaiak	1.092	2.448	215	781
Emakumezko hautagaiak/Guztira (%)	21,8	29,1	15	23,9

Iturria: Emakumea Espainian. Egoera soziala. Emakumearen Erakundea. Madril 1990.

Eusko Legebiltzarrerako emakumezko hautagaien egoeraren eta Kongresu nahiz Senatu espainiarreko hautagaien arteko azterketa konparatiboa eginez gero (1.12 taula) frogatzen da Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan bezalaxe emakumezkoen partaidetza hauteskunde zerrendetan gehitu egin dela. Horrela, Kongresuan 1986an % 21,8 emakumeak izatetik % 29,1 izatera igaro dira 1989an, eta Senatuan 1986an % 15 izatetik % 23,9ra iritsi dira 1989an; beraz, Kongresuko hautagai zerrendetan aurkituko dugu emakumeen presentzia handiena, nahiz eta kasu bietan, eta gauza bera gertatzen da Autonomietako Hauteskundeetan, emakume hautagaien presentzia gizonezkoena baino apalagoa izan. Gisa oroz, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetako portzentaiak Espainiako Kongresuko eta Senatuko hautagai zerrendetakoen gainetik daude.

3. GRAFIKOA. Emakumeen hautagai zerrenden konparaketa, Espainiako Senatu/Kongresua/Eusko Legebiltzarra (%)



1.13 TAULA. Emakumeen presentzia Kongresurako 1986 eta 1989ko hauteskunde orokorretako hautagai zerrendan, Elkarte Autonomoen arabera

	1986			1989		
	Guztira	Emakumeak Osotara	Emakumeak %tan	Guztira	Emakumeak Osotara	Emakumeak %tan
Andaluzia	827	154	18,6	1.296	343	26,5
Aragoi	181	38	21	340	105	30,9
Asturias	108	23	21,3	192	54	28,1
Baleareak	78	15	19,2	144	45	31,2
Kanariak	194	43	22,7	310	86	27,7
Kantabria	60	7	11,6	120	35	29,2
Gaztela-Leon	434	95	21,8	761	222	29,2
Gaztela-Mantxa	232	60	25	475	130	27,4
Katalunia	884	205	23,2	1.186	400	33,7
Extremadura	120	16	13,3	236	51	21,6
Galizia	239	42	17,7	772	205	26,5
Madril	594	165	27,7	864	259	30
Murtzia	104	30	28,8	156	39	25
Nafarroa	81	19	23,4	144	44	30,5
Erreioxa	40	6	15	62	25	40,3
Valentziako Komunitatea	497	100	20,2	749	234	31,2
Euskadi	325	81	24,9	577	170	29,5
Zeuta	9	—	—	16	1	6,2
Melilla	6	2	33,3	11	0	0
GUZTIRA	4.999	1.092	21,8	8.411	2.448	29,1

Iturria: 1986. Emakumea Espainian. Egoera soziala. Politika. Emakumearen Erakundea. Madril 1990. 1989. Emakumea Diputatuen Kongresuan. REIS. 1990.

1.13 taula honek bide ematen digu 1986an Kongresurako eta 1989an Euskal Autonomi Elkartarako hauteskundeetan hautagai zerrendetan aurkeztutako emakumeen presentzia aztertze-ko. Bertan agertzen denez 1986an Autonomiako Hauteskundeetan aurkeztutako hautagai zerrendetan emakumeen portzentaia zertxobait hobea izan zen Diputatuen Kongresurako hautagaien zerrendetakoa baino, % 27,9 batena eta % 24,9 besterarena, hain zuzen.

Euskal Autonomi Elkartaren egoera gainerako Elkarte Autonomoekin alderatzen badugu, 1986an Euskadiko Elkartaren aurretik lau baizik ez zeuden, Melilla, Murtzia, Madril eta Gaztela-Mantxa.

1989ko hauteskunde orokorretan berriz ere gauzatu egiten da azterketan zehar antzematen den joera, hau da, politika arloko esparru ezberdinetan emakumeen presentziak izan duen gorakada. Esate baterako, Euskal Autonomi Elkartaren kasuan Kongresurako hautagaien artean emakumeen portzentaia gehitu egin zen 1986an % 24,9 izatetik 1989an % 29,5 izatera. Gainerako Elkarte Autonomoekin alderatuta Euskal Autonomi Elkartek beste zazpi ditu gainera emakumeen presentziari dagokionez: Erreioxa, Katalunia, Valentziako Komunitatea, Baleareak, Aragoi, Nafarroa eta Madril.

Euskal Autonomi Elkartearen Kongresurako aurkeztu ziren emakume hautagaien portzentaia gehikuntza hori Eusko Legebiltzarrerako hautagaiekin alderatuz gero, agertzen da hauteskunde autonomikoetan emakumeen portzentaia aurretik dagoen arren, hautagai zerrendetan % 37,3 emakumeak baitira, diferentzia orain nabarmenagoa dela, izan ere 1986an EAEn Kongresurako eta Eusko Legebiltzarrerako hautagai zerrendetan emakumezkoei dagokionean aldea % 3koa zen bitartean, hurrengo hauteskundeetan (1989an orokorrak eta 1990an autonomikoak) emakumeen presentzia areagotu egin baitzen, baina gehiago Autonomiako Parlamentuan; hortaz, bi portzentaien arteko aldea nabarmenago bihurtu zen, % 7,8koa, hain justu.

1.14. TAULA. Emakumeen partaidetza Diputatuen Kongresurako hauteskundeetarako hautagai zerrendetan, lurralde historikoen arabera, 1989an

	GUZTIRA	EMAKUMEAK Osotara	EMAKUMEAK %tan
Araba	135	43	31,8
Bizkaia	253	66	26,1
Gipuzkoa	189	61	32,3
GUZTIRA	577	170	29,5

Iturria: Emakumea Diputatuen Kongresuan. REIS, 1990

1.15. TAULA. Emakumeen partaidetza Eusko Legebiltzarrerako 1986 eta 1990ko hauteskundeetako hautagai zerrendan, lurralde historikoen arabera

	1986					1990				
	EMAKUMEAK		GIZONAK		GUZTIRA	EMAKUMEAK		GIZONAK		GUZTIRA
	Osotara	%tan	Osotara	%tan		Osotara	%tan	Osotara	%tan	
Araba	109	27,2	291	72,7	400	154	36,2	271	63,8	425
Bizkaia	109	27,2	291	72,7	400	166	35,1	309	64,8	475
Gipuzkoa	118	29,5	282	70,5	400	172	40,2	253	59,8	425

Iturria: Bertan prestatua, EHAAren argitaratutako zerrendetan oinarrituz

1.16.a) TAULA. Emakumeen eta gizonen partaidetza Eusko Legebiltzarrerako Arabako lurralde historikoko alderdi politikoek aurkeztutako hautagai zerrendetan, 1986an

	EMAKUMEAK		GIZONAK		GUZTIRA	
	Osotara	%tan	Osotara	%tan	Osotara	%tan
AP-PL	7	28	18	72	25	100
CDS	5	20	20	80	25	100
CSI	5	20	20	80	25	100
EA	6	24	19	76	25	100
EAJ-PNV	4	16	21	84	25	100
EE	9	36	16	64	25	100
EMK	7	28	18	72	25	100
HB	4	16	21	84	25	100
IU	5	20	20	80	25	100
LKI	7	28	18	72	25	100
PCE	8	32	17	68	25	100
PH	10	40	15	60	25	100
POSI	13	52	12	48	25	100
PSE-PSOE	2	8	23	92	25	100
PST	11	44	14	56	25	100
UPR	6	24	19	76	25	100
GUZTIRA	109	27,2	291	72,7	400	100

Iturria: Bertan prestatua, EHAAn argitaratutako zerrendetan oinarrituz

1.16.b) TAULA. Emakumeen eta gizonen partaidetza Eusko Legebiltzarrerako Arabako lurralde historikoko alderdi politikoek aurkeztutako hautagai zerrendetan, 1990ean

	EMAKUMEAK		GIZONAK		GUZTIRA	
	Osotara	%tan	Osotara	%tan	Osotara	%tan
ADE	25	100	0	0	25	100
AR	10	40	15	60	25	100
CDS	8	32	17	68	25	100
DS	8	32	17	68	25	100
EA	4	16	21	84	25	100
EAJ-PNV	8	32	17	68	25	100
EE	9	36	16	64	25	100
EHB	14	56	11	44	25	100
HB	6	24	19	76	25	100
IU-EB	8	32	17	68	25	100
LKI-EMK	11	44	14	56	25	100
LVE	11	44	14	56	25	100
PCE (M-L)	—	—	—	—	—	—
PCPE	—	—	—	—	—	—
PH	6	24	19	76	25	100
PP	3	12	22	88	25	100
PSE-PSOE	7	28	18	72	25	100
PST	9	36	16	64	25	100
UA	7	28	18	72	25	100
GUZTIRA	154	36,23	271	63,76	425	100

Iturria: Bertan prestatua, EHAAn argitaratutako zerrendetan oinarrituz

1.17.a) TAULA. Emakumeen eta gizonen partaidetza Eusko Legebiltzarrerako Bizkaiko lurralde historikoko alderdi politikoek aurkeztutako hautagai zerrendetan, 1986an

	EMAKUMEAK		GIZONAK		GUZTIRA	
	Osotara	%tan	Osotara	%tan	Osotara	%tan
AP-PL	6	24	19	76	25	100
CDS	8	32	17	68	25	100
CSI	7	28	18	72	25	100
EA	10	40	15	60	25	100
EAJ-PNV	5	20	20	80	25	100
EE	4	16	21	84	25	100
EMK	13	52	12	48	25	100
HB	7	28	18	72	25	100
IU	4	16	21	84	25	100
LKI	7	28	18	72	25	100
PCE	2	8	23	92	25	100
PH	8	32	17	68	25	100
POSI	9	36	16	64	25	100
PSE-PSOE	4	16	21	84	25	100
PST	8	32	17	68	25	100
UPR	7	28	18	72	25	100
GUZTIRA	109	27,2	291	72,7	400	100

Iturria: Bertan prestatua, EHAAn argitaratutako zerrendetan oinarrituz

1.17.b) TAULA. Emakumeen eta gizonen partaidetza Eusko Legebiltzarrerako Bizkaiko lurralde historikoko alderdi politikoek aurkeztutako hautagai zerrendetan, 1990ean

	EMAKUMEAK		GIZONAK		GUZTIRA	
	Osotara	%tan	Osotara	%tan	Osotara	%tan
ADE	25	100	0	0	25	100
AR	3	12	22	88	25	100
CDS	8	32	17	68	25	100
DS	8	32	17	68	25	100
EA	7	28	18	72	25	100
EAJ-PNV	6	24	19	76	25	100
EE	9	36	16	64	25	100
EHB	7	28	18	72	25	100
HB	7	28	18	72	25	100
IU-EB	8	32	17	68	25	100
LKI-EMK	11	44	14	56	25	100
LVE	12	48	13	52	25	100
PCE (M-L)	7*	28	18	72	25	100
PCPE	8*	32	17	68	25	100
PH	10	40	15	60	25	100
PP	5	20	20	80	25	100
PSE-PSOE	4	16	21	84	25	100
PST	8	32	17	68	25	100
UA	13	52	12	48	25	100
GUZTIRA	166	35,1	309	64,8	475	100

Iturria: Bertan prestatua, EHAAn argitaratutako zerrendetan oinarrituz

1.18.a) TAULA. Emakumeen eta gizonen partaidetza Eusko Legebiltzarrerako Gipuzkoako lurralde historikoko alderdi politikoek aurkeztutako hautagai zerrendetan, 1986an

	EMAKUMEAK		GIZONAK		GUZTIRA	
	Osotara	%tan	Osotara	%tan	Osotara	%tan
AP-PL	11	44	14	56	25	100
CDS	9	36	16	64	25	100
CSI	11	44	14	56	25	100
EA	2	8	23	92	25	100
EAJ-PNV	5	20	20	80	25	100
EE	6	24	19	76	25	100
EMK	11	44	14	56	25	100
HB	4	16	21	84	25	100
IU	3	12	22	88	25	100
LKI	6	24	19	76	25	100
PCE	2	8	23	92	25	100
PH	9	36	16	64	25	100
POSI	14	56	11	44	25	100
PSE-PSOE	4	16	21	84	25	100
PST	12	48	13	52	25	100
UPR	9	36	16	64	25	100
GUZTIRA	118	29,5	282	70,5	400	100

Iturria: Bertan prestatua, EHAAn argitaratutako zerrendetan oinarrituz

1.18.b) TAULA. Emakumeen eta gizonen partaidetza Eusko Legebiltzarrerako Gipuzkoako lurralde historikoko alderdi politikoek aurkeztutako hautagai zerrendetan, 1990ean

	EMAKUMEAK		GIZONAK		GUZTIRA	
	Osotara	%tan	Osotara	%tan	Osotara	%tan
ADE	25	100	0	0	25	100
AR	9	36	16	64	25	100
CDS	8	32	17	68	25	100
DS	11	44	14	56	25	100
EA	6	24	19	76	25	100
EAJ-PNV	8	32	17	68	25	100
EE	6	24	19	76	25	100
EHB	10	40	15	60	25	100
HB	6	24	19	76	25	100
IU-EB	7	28	18	72	25	100
LKI-EMK	10	40	15	60	25	100
LVE	13	52	12	48	25	100
PCE (M-L)	—	—	—	—	—	—
PCPE	—	—	—	—	—	—
PH	11	44	14	56	25	100
PP	10	40	15	60	25	100
PSE-PSOE	6	24	19	76	25	100
PST	14	56	11	44	25	100
UA	12	48	13	52	25	100
GUZTIRA	172	40,2	253	59,7	425	100

Iturria: Bertan prestatua, EHAAn argitaratutako zerrendetan oinarrituz

Ikus daitekeenez 1.14, 1.15, 1.16 a) eta b), 1.17 a) eta b) eta 1.18 a) eta b) tauletan Diputatu-
tuen Kongresurako (1989) eta Eusko Legebiltzarrerako (1986 eta 1990) hautagai zerrendetako
datuak bildu dira, lurralde historikoen arabera. Antzematen da emakumezkoen proportzio han-
diena alderdi estraparlamentarioek dutela. Horrek argi uzten du berriro emakumeen eta gizo-
nen arteko egoera berdintasunik gabekoa, eta ezberdintasun hori probintzia guztietan eta oro-
bat alderdietan gertatzen da, bai eta legegintzaldi bietan ere, nahiz eta egia den, bestalde,
emakumeen presentzia zerrendetan gora egin duela.

Ezberdintasun horrek indarra hartzen du, halaber, zerrendetan emakumeek betetzen dituzten
tokiei erreparatzen badiugu (1.19 a) eta b) taulak). Hobekuntza hutsaren hurrengoa izan zen
1986tik 1990era bitarte horretan, 13. postutik hurbil zegoelarik 12.era baizik ez baitzen ingu-
ratu. Gainera ordezkari-tza parlamentarioa duten alderdiak dira emakume gutxien aurkezte-
dituztenak hautagai zerrendetako lehen tokietan.

1.19.a) TAULA. Emakumeek izandako tokia Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetako
hautagi zerrendetan, alderdi politikoen eta lurralde historikoen arabera,
1986an

		ARABA							
		Zenbatgarrena							
	Emakumezko hautagaien kopurua	1	2	3	4	5	6	7	X
AP-PL	7								18,2
CDS	5				X				13,4
CSI	5				X				14,6
EA	6			X	X			X	11,1
EAJ-PNV	4						X		14,7
EE	9					X			15,6
EMK	7		X	X		X		X	8,8
HB	4								13
IU	5		X				X		9,6
LKI	7			X		X			12,2
PCE	8					X		X	14,6
PH	10		X			X			14,5
POSI	13					X	X	X	14,5
PSE-PSOE	2			X					8,5
PST	11	X	X			X			13,2
UPR	6					X			14,3
GUZTIRA	109	1	4	4	3	8	3	4	13,2

BIZKAIA

Zenbatgarrena

	Emakumezko hautagaien kopurua	1	2	3	4	5	6	7	X
AP-PL	6					X			14,6
CDS	8			X					16,8
CSI	7			X					16,1
EA	10			X					14,3
EAJ-PNV	5								16
EE	4						X		12
EMK	13	X		X	X			X	12,5
HB	7			X			X	X	10,2
IU	4				X				12,7
LKI	7		X						14,5
PCE	2						X		8,5
PH	8	X	X					X	11,2
POSI	9		X			X			16
PSE-PSOE	4					X			16,7
PST	8				X	X	X		11,5
UPR	7								19
GUZTIRA	109	2	3	5	3	4	4	3	13,9

GIPUZKOA

Zenbatgarrena

	Emakumezko hautagaien kopurua	1	2	3	4	5	6	7	X
AP-PL	11					X			16,1
CDS	9				X			X	14,8
CSI	11					X			14,1
EA	2							X	7,5
EAJ-PNV	5						X		16
EE	6			X			X		11,9
EMK	11		X	X	X		X		11,5
HB	4				X				12,2
IU	3				X				13,5
LKI	6					X	X		12,9
PCE	2	X							10,5
PH	9	X						X	13
POSI	14					X	X		14,7
PSE-PSOE	4								18
PST	12				X		X		15,7
UPR	9						X		15,2
GUZTIRA	118	2	1	2	5	4	7	3	13,6

Iturria: Bertan prestatua, EHAAn argitaratutako zerrendetan oinarrituz.

1.19.b) TAULA. Emakumeek izandako tokia Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetako hautagai zerrendetan, alderdi politikoen eta lurralde historikoen arabera, 1990an

		ARABA							
		Zenbatgarrena							
	Emakumezko hautagaien kopurua	1	2	3	4	5	6	7	X
ADE	25	X	X	X	X	X	X	X	1
AR	10							X	14,3
CDS	8			X					16
DS	8				X				15,6
EA	4			X			X		7,5
EAJ-PNV	8					X		X	14,8
EE	9			X					14,5
EHB	14		X		X	X	X	X	11,2
HB	6					X			14,1
IU-EB	8		X		X		X		10,2
LKI-EMK	11	X		X		X		X	9,6
LVE	11	X		X					11,6
PCE (M-L)	—	—	—	—	—	—	—	—	—
PCEP	—	—	—	—	—	—	—	—	—
PH	6			X	X				13,6
PP	3					X			12,3
PSE-PSOE	7				X				15
PST	9	X			X				12,5
UA	7		X	X					11
GUZTIRA	154	4	4	7	7	8	4	5	12

		BIZKAIA							
		Zenbatgarrena							
	Emakumezko hautagaien kopurua	1	2	3	4	5	6	7	X
ADE	25	X	X	X	X	X	X	X	1
AR	3								23
CDS	8				X		X		14
DS	8	X				X			11,1
EA	7			X			X		15
EAJ-PNV	6			X				X	11,1
EE	9		X			X			14,2
EHB	7		X				X		12,4
HB	7		X					X	13,7
IU-EB	8			X	X			X	11,7
LKI-EMK	11	X			X	X	X	X	9,9
LVE	12	X		X				X	12,1
PCE (M-L)	7				X		X		14,2
PCEP	8		X		X				12,6
PH	10	X		X	X	X			13
PP	5				X				14,4
PSE-PSOE	4				X				16,2
PST	8			X		X		X	11,6
UA	13		X	X	X				13,2
GUZTIRA	166	5	7	8	10	6	6	7	12,8

		GIPUZKOA							
		Zenbatgarrena							
	Emakumezko hautagaien kopurua	1	2	3	4	5	6	7	X
ADE	25	X	X	X	X	X			1
AR	9			X			X	X	13,2
CDS	8		X		X				14,1
DS	11	X			X			X	13,4
EA	6		X	X			X		11,3
EAJ-PNV	8			X					12,6
EE	6						X		13,1
EHB	10			X			X		13,9
HB	6		X		X				14
IU-EB	7			X					15
LKI-EMK	10			X		X		X	10,4
LVE	13		X	X	X			X	13,1
PCE (M-L)	—	—	—	—	—	—	—	—	—
PCEP	—	—	—	—	—	—	—	—	—
PH	11		X	X	X			X	11,1
PP	10			X					16,2
PSE-PSOE	6							X	16
PST	14	X			X		X		12,5
UA	12		X		X		X		12,7
GUZTIRA	172	3	7	10	8	2	6	6	12,5

Iturria: Bertan prestatua. EHAAn argitaratutako zerrendetan oinarrituz.

Emakumeen presentziari dagozkion datuak behin aztertuz gero, bai alderdi politikoen hautagaienak eta baita ondoren hautetsienak ere, eta gizonak betetzen dituzten tokiekin alderatuta zer diferentzia dagoen hauteman ondoren, badirudi bidezkoa dela egitura politiko honetan emakumearen presentzia handiagoak edo txikiagoak izan dezakeen esanahi erreala hizpidera ekartzea, hauteskundeak helburu direla emakumeen presentzia nola erabiltzen den ongi argitzearren.

Baiezta daiteke, nahiz eta alderdi politiko guztiek emakumeren bat baldin bazuten ere beren hautagai zerrendetan, haiek betetzen zituzten tokiak, batez beste (12garrena 1990ean) hobeak zirela boto gutxien jasotzen dituzten alderdi txikienetan (minoritarioak). Beraz, hautatuak izateko aukera gutxi zuten. Alderdi nagusienetako zerrendetan ez da oso erraz aurkitzen emakume bat lehenengo postuetan, horregatik emakumearen ordezkaritza erreala zalantzan jartzekoa da.

Botere politikora iristeko aukera berdintasunik eza modu eragile batez neurtu daiteke, gizon batek edo emakume batek aukeratua izateko duen benetako aukera aztertuz. Ratioa kalkulatzeko eragiketa hau egin daiteke: hauteskundealdi bakoitzean aukeratutako parlamentari kopurua zati hautagai guztiak bider ehun.

Aztergai dugun kasu honetan hauek lirateke emaitzak:

— 1986:

$8/336 \times 100 = 2,38$ emakume

$67/864 \times 100 = 7,75$ gizon

– 1990:

$$13/492 \times 100 = 2,6 \text{ emakume}$$

$$62/833 \times 100 = 7,4 \text{ gizon}$$

Bistan denez, hautatua izateko aukera emakumeen kasuan aski murrizta da, eta horrek nolae-rebait aditzera ematen digu emakumeen partaidetza hautagai zerrendetan beste ezerengatik baino gehiago alderdien interesengatik dela edota ordezkaritza sinboliko baten mesedetan egindakoak.

BATZAR NAGUSIAK

1.2.2

Batzar nagusiak lurralde historikoetako botere legegile dira (1.20 taula) eta honetan ere emakumeak kopuruz gutxiago direla baieztatzen da, Gipuzkoan % 9,8 baizik ez direlarik, Bizkaian % 13 eta Araban % 15,7.

1.20. TAULA. Emakumeen partaidetza lurralde historikoko bakoitzeko Batzar Nagusietan, alderdi politikoen arabera, 1991an

	ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	Guztira	Emakumeak	Emakumeen %koa	Guztira	Emakumeak	Emakumeen %koa	Guztira	Emakumeak	Emakumeen %koa
EA	3	–	0	4	–	0	12	2	16,7
EAJ-PNV	13	3	21,4	21	3	14,3	12	–	0
EE	2	–	15,7	2	–	0	4	–	0
HB	7	2	28,6	8	2	25	12	2	16,7
PP	3	–	0	4	–	0	2	–	0
PSE-PSOE	11	2	18,2	12	2	16,7	9	1	11,1
UA	11	1	9,1	–	–	–	–	–	–
GUZTIRA	51	8	15,7	51	7	13,7	51	5	9,8

Iturria: Emakunde.

Euskal Autonomi Elkarteko datu orokorrek gehikuntza txiki bat erakusten badute ere, Batzar Nagusietan parte hartzen duten emakumeek desabantaila nabarian segitzen dute, 1987an % 11,1 eta 1991an % 13,7 baizik ez baitira (Ikus. eraskineko A.5 taula).

1.2.3

Botere politikoaren arloan, udala da hiritar bizitzaren adierazpenik hurbilena, eta horregatik hartzen da eguneroko zereginetatik gertuen dagoen boteretzat.

Era horretako boterean hiritarrekin harreman zuzenago bat sortzen da, eta horregatik udalak hartzen dituen akordio nahiz erabakiek biztanlegoaren interes konketuak ukitzen dituzte. Esan ere esaten da udal arloan "alderdiaren gainetik pertsona dagoela". Beraz, alderdiaren eta hautagaiaren arteko joko bikoitz horretan badirudi, printzipioz, udalean bederen, lehentasuna "personari" eman behar zaiola, eta beraz, emakume izateak ez lukeela inolako eraginik izan behar mota honetako botorera iristeko. Alabaina, justu kontrakoa ere gertatzen ahal da, hain zuzen ere ingurune sexista dela medio, faktore hori kasu askotan erabakiorra izatea.

1.21. TAULA. Emakumeen presentzia Zinegotzigoetan, lurran de historikoen arabera, 1991n

	KOPURUA	%	GUZTIRA
Araba	52	12,7	409
Bizkaia	203	17	1.191
Gipuzkoa	158	16,8	939
GUZTIRA	413	16,2	2.539

Iturria: Emakunde.

Datuei bagagozkio oraindik ere alde handiak nabaritzen dira emakumezko eta gizonezko zinegotzi kopuruan. Euskal Autonomi Elkar te osoko datuak hartzen badira erreferentzi gisa, 1987an emakumezko zinegotziak % 12,4 ziren, eta 1991ko hauteskundeetan 4 puntu baino gehiago igo zuen portzentaia horrek, emakumeak % 16,2raino iritsi zirelarik.

Lurralde historikoei buruz, Gipuzkoa eta Bizkaiko emakume zinegotzien proportzioa berdintsua da oso, % 17 inguru, eta Arabakoa berriz apalagoa, % 12,7.

1.22. TAULA. Emakumeen presentziaren konparaketa lurralde historikoetako hiriburuetako Zinegotzigoetan, alderdi politikoen arabera, 1987 eta 1991n

	VITORIA-GASTEIZ				BILBO				DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN			
	1987		1991		1987		1991		1987		1991	
	Emakumeak	%	Emakumeak	%	Emakumeak	%	Emakumeak	%	Emakumeak	%	Emakumeak	%
CDS	0	0	—	—	0	0	—	—	—	—	—	—
EA	4	40	0	0	1	33,3	1	33,3	0	0	1	16,7
EAJ-PNV	1	50	3	37,5	1	11,1	2	22,2	0	0	1	25
EE	0	0	—	—	0	0	1	33,3	1	25	0	0
HB	1	33,3	1	33,3	1	20	1	20	1	16,7	0	0
PP/AP	0	0	0	0	0	0	1	50	1	33,3	2	40
PSE-PSOE	0	0	0	0	0	0	0	0	1	20	1	20
UA	—	—	2	28,6	—	—	—	—	—	—	—	—
GUZTIRA	6	22,2	6	22,2	3	10,3	6	20,7	4	14,8	5	18,5

Iturria: Emakunde.

Lurralde osoaren erakusletzat hiru hiriburuak hartzen badira (1.22 taula) aurreko Legegintzaldiekin alderatuta sendotu egiten da ohizko bihurtu den emakumeen presentziaren gorakada, Gasteizkoa salbu, kuota bera baitu 1991n eta 1987an. Dena den, eta higigetasun hori gorabehera, udal horretan dago emakumeen proportzio handiena (% 22), gertutik Bilbokoak segitzen dio (% 21), Donostia % 18,5ekoa den bitartean. Aipatzea ere merezi du Bilbok denboraldi honetan izan duen gorakadak, lehen zuen emakumezko zinegotzien kopurua bi halakotu egin baita.

1991n, ondoko Zinegotzigoetan emakumeen esku zeuden kargu hauek:

Zinegotzi Delegatuak:

BILBO (Bilboko Udalean dauden emakumezko sei Zinegotzietatik bat bakarra da Zinegotzi Delegatua).

— Emakumea-gazteria eta kirola.

GASTEIZ (Gasteizko Udalean dauden emakumezko sei Zinegotzietatik bost Zinegotzi Delegatuak dira).

— Lehendakaritza eta gizarte eskuhartzailetza.

— Gizarte ongizate departamentua.

— Udal agiritegiaren zerbitzua.

— Hautapena, prestakuntza eta euskalduntzea.

— Herritarren partaidetzaren zerbitzu orokorra.

DONOSTIA (Donostiako Udalean dauden emakumezko bost Zinegotzietatik hiru Zinegotzi Delegatuak dira).

— Kirola eta gazteria.

— Turismoa eta kanpo sustapena.

— Gizarte zerbitzuak.

Berririo somatzen denez, emakumezko zinegotzi horiek "ematasun" ezaugarria duten ihardue-
rekin erlazionatutako batzordeetan aritzen dira batik bat.

1.23. TAULA. Emakumeen presentzia Zinegotzigoetan, lurralde historikoen eta alderdi politikoen arabera, 1991n

	ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA			GUZTIRA		
	Emakumeak Osotara	%	Guztira	Emakumeak Osotara	%	Guztira	Emakumeak Osotara	%	Guztira	Emakumeak Osotara	%	Guztira
EA	6	16.2	37	20	19	105	25	15	166	51	16.5	308
EAJ-PNV	25	13.2	188	89	15.7	566	37	17.2	214	151	15.5	968
EE	0	0	5	8	20	40	9	15.2	59	17	16.3	104
HB	7	16.2	43	50	20.3	246	50	18.5	269	107	19.1	558
PP	3	8.1	37	4	19	21	3	3	10	10	14.7	68
PSE-PSOE	8	18.6	43	23	16	143	21	20.5	102	52	18	288
UA	3	7.6	39	—	—	—	—	—	—	3	7.6	39
BESTE BATZUK	—	—	—	9	13.8	65	13	20.5	102	22	13.1	167

Iturria: Emakunde. Bertan prestatua, ordezkarien zerrenda ofizialetan oinarrituz.

Azkeneko udal hauteskundeetan lehiatu diren alderdi politikoen gaineko datuak aztertu ondo-
ren aipatu behar dugu datu jakingarri gisa ez dagoela alderdi bat bera ere, ez ezkerreko ez
eskuineko, emakumezko hautetsi kopuru aipagarriarik duenik, bada, alderdi politiko guztietan or-
dezkaritza kuota, gutxi gorabehera, Euskal Autonomi Elkartean osoko batezbestekoaren inguruan ko-
katzen baita.

Halaz guztiz ere, emakumearen udal politikan etorkizuneko ordezkartzaren funtsezko elementu
dira, inolako dudarik gabe, alde aurreko hautagai zerrendak, izan ere, kandidatura bakoitzean
aurkezten diren emakumeen kopurua eta zerrenda horietan zenbatgarren agertzen diren jaki-
narazten digutelako. Faktore bien konbinaketaren menpe dago hautatzen diren emakumeak
gehiago edo gutxiago izatea.

Alde horretatik, 1991n Euskal Autonomi Elkartean egin ziren hauteskundeetan osotara 3.216
emakume aurkeztu ziren eta horietatik, lehen aipatu bezala, 413 hautatuak izan ziren, beraz,
zerrendetan agertutako emakumeetatik hautatu zituztenak ez dira % 13ra iristen; beste modu
batez esateko, horrek esan nahi du zerrendetako emakumeetan zortzitik batek duela hautatua
izateko aukera.

1.24. TAULA. Emakumeak 1991ko hauteskundeetako hautagai zerrendetan. Haien kopurua eta batez beste zenbatgarren agertzen diren zerrendetan, alderdi politikoen arabera

	EMAK. HAUTAGAIK X	BATEZ BESTE ZENBAT DAU- DEN ZERRENDA BAKOITZEKO
CDS	153	10,2
EA	491	3,1
EAJ-PNV	497	2,3
EE	406	4,1
HB	569	3
IU-EB	147	4,6
PP	337	5,7
PSE-PSOE	417	3
PST	53	6,6

Iturria: Emakunde. Bertan prestatua, ordezkarien zerrenda ofizialetan oinarrituz

Aipatu hauteskundeetan aurkeztu ziren alderdi politikoen datuak aztertuz, zera dakusagu, alegia HBk aurkeztu zituela emakume gehien eta ondotik EAJ-PNVk. Haatik, osotara hartuta datu horiek egiazkoak dira alderdi horiek udalerri askotan aurkezten direlako, baina zenbaki erlatiboetan eta batezbestekoa eginez frogatu daiteke CDS, PST bezalako alderdi minoritarioek dutela emakume hautagaien batezbesteko altuena, udaletan gero ordezkari izateko lortzen ez badute ere. Eta alderantziz, Elkarte Autonomoan boto gehien eskuratzen dituzten alderdiak, PNV, PSOE, HB kasu, emakumezko ordezkari izateko kuota apalenezkoak dira (2,3 eta 3).

Udal politikan emakumeek duten presentziaren adierazle berri bat da ia alderdi politiko guztiek aurkezten dituztela emakumerik gabeko zerrendak edo kandidaturak, neurri ezberdinetan, jakina.

1.25. TAULA. Emakumezko hautagairik aurkeztu ez zuten udalen kopurua eta portzentaia, alderdi politikoen arabera, 1991n

	EMAKUMEZKO HAUTAGAIRIK GABEKO UDALERRIEN KOPURUA, ALDERDI BAKOITZEKO	EMAKUMEAK AURKEZTEN ZIREN UDALERRIAK	EMAKUMEZKO HAUTAGAIRIK GABEKO UDALEN %
CDS	0	15	0
EA	12	287	4
EAJ-PNV	30	211	14
EE	2	102	2
HB	17	192	9
IU-EB	0	32	0
PP	5	71	7
PSE-PSOE	20	142	14
PST	0	7	0

Iturria: Emakunde. Bertan prestatua, hautagai eta ordezkarien zerrenda ofizialetan oinarrituz.

lido horretatik, atxikitako taulan ikus daitekeenez, 1991ko udal hauteskundeetan, EAeko alderdi minoritarioak salbu, IU, PST eta CDS, gainontzeko alderdietan somatzen da hainbat udalerritan gizonekin bakarrik osatutako kandidaturak aurkeztu zituztela. Horrela EAJ-PNVk 30 udalerritan ez du emakume bat bera ere aurkeztu, PSE-PSOEk 20tan, hau da, portzentaiak aterata hauteskunde lehian aritu direneko udalerrietako % 14etan ez zuten emakume batere sartu beren zerrendetan.

Bestalde, aurrez esan bezala, hautatua izateko aukera hein handi batean zerrenda horietan ba-koitzak betetzen duen tokiaren arabera izango da. Kasu honetan daturik interesgarrienetako zen alderdi minoritario gisa katalogatutakoek zeramatzen emakumeak ez zirela behin ere lehenengo tokian agertzen (CDS, PST). Gainerakoek, gutxi ala gehiago, lehen hautagai emakumezkoren bat edo beste badute.

1.26. TAULA. Emakumeak zenbatgarren agertzen ziren 1991ko hauteskundeetako zerrendetan

	1.	2.	3.	4.	5.	6.	7.
CDS	—	2	8	7	5	8	6
EA	20	39	31	34	39	40	42
EAJ-PNV	15	30	44	43	45	46	35
EE	14	19	35	40	27	36	36
HB	25	36	45	48	52	51	42
IU-EB	4	6	11	10	10	8	4
PP	8	19	25	23	29	23	34
PSE-PSOE	21	27	37	31	25	34	30
PST	—	3	4	3	6	3	3

Iturria: Emakunde. Bertan prestatua, kandidaturen zerrenda ofizialetan oinarrituz

Hautatua izateko aukera handiagoa izaten da, noski, alderdi handi batean agertuz gero, eta bestalde, hautagaien eta hautatuen arteko erlazioa aldakorra izaten da, adibidez EAJ-PNVko emakumezko hautagaiek dituzte hautatuak izateko aukera gehienak. Azken hauteskundeetan, esaterako, haietako % 30 hautatu zituzten, esan nahi baita, aurkeztutako emakumeetan, hirutik batek eskainua lortu zuela.

Bigarren alderdia HB izan zen, bostetik bat atera zuelarik, eta horrela denak, harik eta PPra iritsi arte, non aurkeztutako emakumeen % 3 baizik ez baitziren hautatuak izan hauteskunde haietan.


1.27. TAULA. Emakumeen kopurua eta proportzioa 1991ko udal hauteskundeetako emakume hautagaiekin alderatuta, alderdi politikoen arabera

	EMAKUME HAUTETSIAK	EMAKUME HAUTAGAIK	%
EA	51	491	10,3
EAJ-PNV	151	497	30,3
EE	17	406	4,1
HB	107	569	18,8
PP	10	337	2,9
PSE-PSOE	52	417	12,4
BESTE BATZUK	25	353	7

Iturria: Emakunde. Bertan prestatua, kandidatura eta ordezkarien zerrenda ofizialtan oinarrituz

Azkenik, emakumearen errealitatearekiko beste datu esanguratsu bat da Euskal Autonomi Elkarteko udalerrietarik % 25ek ez dutela inolako ordezkari emakumezkorik, eta udalerriak zenbat eta txikiago hainbat eta nabarmenago fenomeno hori, hainbestearino non 1.000 biztanletik bererako udalerrien erdietan ez dute emakumezko zinegotzirik bat ere. Aldiz, 10.000 biztanletik gorako udaletan beti egongo da emakumezko hautagairen bat.

4. GRAFIKOA. Udaletako emakume hautetsien proportzioa, 1991n



Alderdi politikoak oinarrizko elementuak dira, zeinen gainean antolatzen baita politikaren egitura osoa.

Izan ere, partidu politikoek osatzen dute eguneroko ekintza politikoaren euskarria, eta benetako elementu dinamizatzaile eta kontrolatzaile dira; alderdi politikoaren baitan eratzen dira boterearen jarraibideak, eta haien exekutibak dira hautagaiak -gero boterearen elitea osatuko dutenak- izendatzeko ardura dutenak.

Alde horretatik, eta ekintza politikoaren ikuspegitik, zehatz-mehatz aztertuko da zein toki okupatzen duten emakumeek esparru publikoan, goi karguetarako biderik duten, alderdien exekutibak nolakok diren, emakumeak militante gisa soilik azaltzen diren, edo besterik gabe, politika ezaugarri maskulinoak dituen esparru bat dela-eta, agertu ere egiten ez diren.

ALDERDI POLITIKOEN EXEKUTIBAK

Emakumeek alderdi politikoetan duten presentziari buruzko datuen azterketak erakusten digu haietako exekutibetan emakumeek desabantaila handia dutela gizonezkoekin alderatuta (1.28 taula).

1.28. TAULA. Emakumeen presentzia alderdi politikoetako exekutibetan: EA, EAJ-PNV, EE, HB, PP, PSE-PSOE, UA

EA	1986	1991
	Emakumeak	
Exekutiba Nazionala	0	10
Arabako Exekutiba	9,1	23,1
Bizkaiko Exekutiba	25	25
Gipuzkoako Exekutiba	15,4	8,3

Iturria: EAK emandako datuak.

EAJ-PNV	1986			1991		
	Emakumeak Osotara	%	Guztira Osotara	Emakumeak Osotara	%	Guztira Osotara
Euskadi Buru Batzar	1	8,3	12	1	7,7	13
Araba Buru Batzar	1	10	10	1	10	10
Bizkaia Buru Batzar	1	10	10	2	20	10
Gipuzkoa Buru Batzar	1	10	10	1	8,3	12

Iturria: EAJ-PNVk emandako datuak.

EE	1985	1991
	Emakumeak	
Biltzar TTI	15 %	27 %
Batzorde Exekutiboa	19 %	28 %

Iturria: EEk emandako datuak.

HB	1986			1991		
	Emakumeak Osotara	%	Guztira Osotara	Emakumeak Osotara	%	Guztira Osotara
Mahai Nazionala	3	9,4	32	3	9,1	33
Bizkaiko Herrialdea	1	5	20	6	28,6	21
Gipuzkoako Herrialdea	1	8,3	12	2	11,1	18
Arabako Herrialdea	—	20	—	—	25	—

Iturria: HBk emandako datuak.

PP	1991		
	Emakumeak Osotara	%	Guztira
Eskualdeko Batzarra	3	14,3	21
Bizkaiko Batzar Probintziala	11	21,6	51
Gipuzkoako Batzar Probintziala	9	25,0	36
Arabako Batzar Probintziala	4	15,4	26

Iturria: Partidu Popularrak emandako datuak.

UA	1990
	Emakumeak
Batzorde Exekutiboa	13,33
Koadriletako Lurralde Kontseilua	20,4

Iturria: Unidad Alavesak emandako datuak.

PSE-PSOE	1986		Guztira
	Emakumeak Osotara	%	
Euskadiko Exekutiba	4	19	21
Arabako Exekutiba	4	21	19
Bizkaiko Exekutiba	3	15,8	19
Gipuzkoako Exekutiba	5	22,7	22

Iturria: PSE-PSOE emandako datuak.

Emakumeen ordezkaritza eskualdeetako organoetan, XXXIII Kongresuaren aurretik eta ondotik

	AURRETIK			ONDOTIK		
	Guztira	Emakumezkoak	%	Guztira	Emakumezkoak	%
E.A.E.	21	5	23,8	31	8	25,8

Iturria: PSE-PSOE emandako datuak.

Komite Federalerako eskualdeko Kongresuan hautatutako emakumeak, XXXIII, Kongresuaren aurretik eta ondotik

	AURRETIK			ONDOTIK		
	Guztira	Emakumezkoak	%	Guztira	Emakumezkoak	%
E.A.E.	4	1	25	6	—	—

Iturria: PSE-PSOE emandako datuak.

Egoera hau oso arrunta da eta hedatua dago alderdi politiko nagusienetan. Bestalde, erantzukizun handieneko organoetan, hala nola exekutiba erregional nahiz nazionalen, salbuespenak salbuespen, emakumeek ez dute % 10eko muga gainditzen.

Dena den, emakumeek alderdi politikoen exekutibetara sartzeko egin duten bidea itzulerarik gabekoa dirudi, eta urtetik urtera gehitzen doa, nahiz eta artean ere urrun samar dagoen berdintasunezko baldintzetan legokiekeen maila erdiesteko.

MILITANTZIA POLITIKOA

Azterketaren edozein gunetan aurkituko ditugun datuek adierazten digute politikaren ezaugarrietako bat maskulinizatzeko gradu handia dela, batez ere goi karguetan, izan ere afiliazio zifrak aztertuz ateratzen den ondorioa da emakumeek parte-hartze handiagoa dutela militantzia ekin-

tzetan exekutibetan baino; izan ere, informazioa eman duten alderdietako emakumezkoen afiliazioa, gehienetan % 25etik goiti dago, batzuetan % 51ra ere iristen delarik, Gipuzkoako PPn kasuan adibidez.

1.29. TAULA. Emakumeen partaidetza alderdi politikoetako afiliazioan, 1991n

EA	1991 %
Araba	31
Bizkaia	30,8
Gipuzkoa	28,2

Iturria: EAK emandako datuak.

EAJ-PNV	1991 %
Araba	18,1
Bizkaia	32,4
Gipuzkoa	31
Nafarroa	28

Iturria: EAJ-PNVk emandako datuak.

EE 1985	1991 Emakumeak
30 %	35 %

Iturria: EEk emandako datuak.

PP	1991 %
Bizkaia	37,9
Araba	34,1
Gipuzkoa	51,6

Iturria: PPk emandako datuak.

PSE-PSOE	Guztira	1991 Emakumeak	%
Euskadi	7.676	1.021	25

Iturria: PSE-PSOE emandako datuak.

UA	1991 %
Araba	28,3

Iturria: UAk emandako datuak.

Beraz, badirudi emakumeak parte hartzen duela alderdien baseetan, goiko eliteetan baino gehiago bai behintzat. Erabakiak hartzea, alabaina, gizonen eskutan dago oraindik.

Militantzia politikoa politikaren beste arloak bezalaxe, gizonen esku dago, emakume afiliatuen portzentaiak exekutibetakoak baino altuagoak diren arren.

Kapitulu osoan zehar zenbait daturen bidez, iharduera politikoaren arlo zabal eta konplexu horretan emakumeen egungo egoera azaltzen saiatu gara. Zenbait kasutan aurreko urteetako datuak eman ahal izan ditugu, eta horrek bide eman digu emakumeen eta politikaren artean zer-nolako bilakaera edo aldaketa gertatzen ari diren nolabait azaltzeko. Ildo horretan, gure asmoa da erakutsitako informazio kuantitatibo guzti hori elkarriketatutako emakumeen iritziekin osatzea. Emakume horiek Euskal Autonomi Elkartearen bizitza politikoa osatzen duten alderdi politikoetako emakume hautetsiak dira.

Emakume horiek emandako testigantzek informazio kuantitatiboen zehaztasun eta objektibotasunik ez badute ere, gure ustez kontuan hartzen bada haiek duten esperientzia, beren alderdi politikoaren "aitzindari" edo ordezkari izatera iristeko hainbat etapa eta prozesutan metatu duten esperientzia, alegia, interesgarri ezezik argigarri ere izan daitezke lekukotasun horiek, emakumea politikan nola sartzten den zehatz-mehatz aztertzerako orduan, bada, emakumeen errealitate politikoaren arloan informazio kuantitatiboak aintzat hartzen ez dituzten zehaztasunak ugari baitira.

Kapitulu honen lerro nagusiak ongien biltzen dituen galdera hauxe izango litzateke: nola ikusten duten emakume horiek, politika arloan duten esperientziarekin, bizitza publikoan eta kulturalean, non politika ere sartu behar baita, emakumeek izan duten bilakaera?

Horri dagokionez, datu kuantitatiboek bide ematen digute azken urteotan emakumeak botere publikoetara emeki-emeki nola iritsi diren egiaztatzeko; era berean elkarriketatu ditugun emakumezko politikariek horixe berori baieztan digute, erabat ados daudela, alegia, azken urteetan bilakaera positiboa izan dela emakumeak esparru publikoan eta kulturazkoan sartzeari dagokionez. Esparru politikoan, esate baterako, gaur egun duela urte batzuk baino askozaz emakume gehiago aurkitzen ditugu.

Elkarriketatu diren emakumeen erantzunengatik baikortasuna nagusi izanik ere, ez dugu ahan-tzi behar beste alde batetik gaur egungo eskasiaren kontzientzia ere badagoela eta orobat, gizonen eta emakumeen parte-hartze mailan ere diferentziak badirela. Egia da politikan sartu diren emakumeen kopuruak gora egin duela aspaldi honetan, baina gizonaekin alderatuta franko gutxiago direnez bide luzea gelditzen zaie oraino.

Emakumeak politikan sartzea positiboki hartzen da (bai eta bizitza publikoan eta kulturazkoan ere, oro har), eta ez bakarrik gehikuntza kuantitatiboaren aldetik ikusita, baita emakumeen bizitza publikoan eta kulturalean, eta jakina, politikoan ere bai, gertatzen ari den mentalitate aldaketaren aldetik ere. Dirudienez, pixkana-pixkana ideia batzuk baztertzan ari dira, esaterako mota hauetako iharduerak gizona dagozkiela eta emakumeek ez dutela horietan zer eginik.

Emakumeek politikan aritzeko ahalmenik duten ala ez ere eztabaidatu da emakumezko politikariei egindako elkarriketetan. Denak ados dira politikara dedikatzeko ahalmenak pertsonen sexuarekin inolako zerikusirik ez duela esatean.

Galdegin zitzaientzan ea alderik dagoen sexu batekoen eta bestekoaren artean politikarako ahalmenean, erantzuna tinkoa izan zen: "gizona ez da berez emakumea baino trebeagoa politikan,

eta alderantziz ere ez, zerbaitek gaitzen badu pertsona bat politikan aritzeko, zerbait horrek sexuarekin ez du inolako zerikusirik”.

Horrezaz gainera, orain arte aztertutako erantzunek etorkizunerako itxaropide onak erakusten dituzte, guztiz baikor agertu baitira: “hurrengo urteak arront positiboak izango dira emakumeak politikan, eta oro har, bizitza publikoan eta kulturalean sartzeko”.

Adierazpen hauetan guztietan nabarmen agertu da honako ideia hau, emakumeak bizitza politikora sartzeko prozesua aspaldi hasi zela, alegia, eta helburu asko lortzeke dauden arren, itzulerarik gabeko egitate baten aurrean gaudela; elkarriketatu batzuen hitzez esateko “ez dago atzera egiterik”, “emakumeek ondoko urteetan gero eta inplikazio kota handiagoak erdietsiko dituzte politika arloan”, nahiz eta, honetan ere gehienak ados, erraza izango denik inork ez duen uste, alderantziz baino. Alabaina, denen iritziz, ahaleginak merezi izango du, emakumeen eginkizunak, hala politikan nola bizitza publiko eta kulturalean ere, garrantzi handiagoa izango baitu. Hori frogatu nahian, beste erantzunekin gertatzen zenaren antzo, emakumeengan eragina izan duten prozesu eta aldaketa sozialak aipatzen zituzten, hain zuzen ere, tradizioz gizonezkoei zegozkien eremuetan, politikan adibidez, sarrera erraztu zietenak. Hemen aipatuko ditugun alderdi batzuek, adibidez unibertsitateko ikasketetan sartu ahal izateak, bide eman dio emakumeen kolektiboari gizonezkoen hezkuntza maila izan dezan. Gisa berean, mentalitate aldaketa gertatu da emakumeek gizartean duten eginkizunaren gainean, konkretuki politika bezalako arloetan. Aldaketa horrek auriritzi kultural ugari auzitan jarri ditu iraganean txintik gabe onartzen zirenak. Orain ezbaian daude eta gaur eguneko polemika gune bihurtu dira. Elkarriketatu batek zioen emakumeen erreibindikazioekin ados ez daudenek kontrako argudioak ez dituztela erraz asmatuko.

Kapitulu honetan barrena argi geratu den arren emakumeek lortu beharreko partaidetza maila hoberenak oso urrun daudela, aitortu beharra dago haien presentzia, xumea bada ere, errealtate bat dela. Bildu dugun informazio kuantitatiboaren bidez ezin daiteke argi aztertu zein den emakumeak eremu politikoan sartzeak eginkizun maskulino eta femeninoaren ikuspegi tradizionalean izan duen eragina, hala ere “arazora” hurbiltze teoriko bat egin daiteke, elkarriketetan parte hartu duten emakume politikariek emandako testigantzak direla medio. Haien ikuspegitik ebazterik izango da neurri batean bederen, emakumeen presentziak arlo politikoan eraginik izan duen edo ondoriorik eginkizunen aldaketan.

Bildu diren iritzietan antzeman dugu emakumeek badutela konfidantzarik politika arloan sartu ahal eginkizun femeninoen eta maskulinoen ikuspegia aldatu egingo dela. Dena den, haiek guztiek ez dute helburu hori epe motzerako ikusten, etorkizuneko itxaropen gisa baizik.

Helburu hori errotu edo errealtate bihur dadin, asko aldatu beharko litzateke, ez laneko esparruan bakarrik —ordutegia aldatuz, familiaren ardura duten emakumeei lan politikoa erraztu edo ahalbideratzeko—, baita orain arte gizonen erreserba izan diren lan arlo zenbaitetan ere, hala nola ekonomian, industrian, e.a., zeren eta gaur egun zeregin estandar berberak ematen baitzaizkie oraindik, “emakume izateari” egokitzen “omen” zaizkionak, gizarte ongizate, kultura eta horrelakoak.

Aldaketa prozesuak, halaber, eragina izango du politika egitea erabaki duten emakumeek heredatu dituzten ohitura guztietan. Ohitura horiek mintzatzeko modua bezainbeste zuzendaritza estiloa ere baldintzatzen dute, bada, erantzunbeharrak ere aski ezberdinak baitira sexu bietan. Alderdi hauek aldatuz joango dira emakumeen presentzia politikan sendotzen eta gizonezkoekin baliokidetzen doan heinean.

Hala ere, gizonen maila berera heltzeko bideak oztopo latzak ditu, horien artean gogorrenak familiko erantzunbeharrak dira, politikan parte hartzeko erabakia hartu behar denean. Printzipioz eta modu objektiboan, batez ere bizitzaren zenbait alditan, elementu horrek eragin berbera izan beharko luke bai gizonengan eta baita emakumeengan, baina egitan ez da horrela gertatzen, eta familiaren ardura betidanik emakumeen esku egon denez, borrokagunerik borrokatuena da orain, horretxan erruz hainbat emakumek bere etorkizun politikoa nahiz profesionala zapuztu egin baitu etxeko "bakea" hautsi ez zedin amoreagatik.

Elkarrizketatu diren emakumezko ordezkari politikoen esperientziak erakusten digu posible dela famili bizitza ekintza politikoarekin bat egitea, baina, emakume guztiak politikari nahiz etxekoan-dre gisa aritu ahal izan badira ere, haien erantzunetan agertzen dute horretarako zer zailtasunak izan dituzten: eginkizun biak batean egiterik badago, jakina, baldin eta familiak, zehatzago esanda bikoteak familiaren eginbeharren ardura bere gain hartzen badu eta senar-emazte bien artean, eta hala behar denean seme-alabekin batera, egiten badira. Horrek esan nahi du bizilagunak edo senarrak bere jarrera aldatu behar duela, emakumeek iharduera politikoetan parte hartu ahal dezaten edo/eta aukera hori egiteko abagunean izan ahal daitezen.

Halaber, politika famili zereginekin bat egin ahal izateko, estamentu ezberdinetatik iharduera politikoaren funtzionamenduan alderdiren batzuk aldatzea proposatu da, bilkuren ordutegia adibidez. Hori ahalegin bat izan da famili zereginak dituzten pertsonen eremu politikoan sartzeko erraztasunak izan ditzaten.

Postu politiko horietan sartzeko beharrezkotzat jotzen da, orobat, famili eginbeharrentzako ardura beste modu batera planteatzeko neurriak sortzea (hautzaindegiak, jangelak, familiako beste kide batzuk ere zeregin horietaz arduratzea, etab). Horrela postu politikoan daudenek dedikazio gehiegi izan dezakete politika zereginetan.

Zergatien azterketaren ikuspegitik planteatu zen, erantzunbehar handiko kargu politikoren batean dauden emakume hauek izan zitzaizkela euren arteko ezaugarriren batzuk, bereziak edo amankomunean.

Jaso ditugun iritzietatik ez daiteke esan emakume politikariek ezaugarri bereziak dituztenik, non eta beren formazioa ez den; diferentziak badira bizitza politikoan parte hartzen duten eta hartzen ez duten pertsonen artean, baina, sexua ez da funtsezko aldagaia. Emakume politikari zenbaitek dioenez, bizitza politikoan sartzeko behar-beharrezkoak dira dedikazioa, jarraipena, gogoia, baina argi dago kalitate berberak behar izaten direla bai emakumeen aldetik, baita gizonezkoenetik ere, ez politikan aritzeko bakarrik, baita edozein ihardueratan ongi aritzeko ere. Ez dute, beraz, pentsatzen emakume horiek "bereziak" direnik, eta bereziak zerbaitetan izatekotan iharduera konkretu bat aukeratu dutelako izango dira eta horretan jartzen dituztelako beren dedikazio eta gogo guztiak.

Elkarrizketatu genituen emakume politikariek beren iritzia eman zuten galdetu zitzaizenean ea gerta daitekeen emakumeak politikan sartzean eremu horretara balore berriren bat edo positiboren bat ekartzea.

Elkarrizketaturiko emakumeek, bat ezik beste guztiek, uste dute, gizonak eta emakumeak ezberdinak izanik, edozein ihardueran aritzeko orduan -politikan ere bai, noski-, hartan parte hartzen duten pertsonen errealitateak eta ezaugarriek eragina izango dutela hura exekutatzean, beraz, emakumeak eremu politikoan sartu ahala, hauen presentzia isladatu egingo dela. Eta sartze horri buruz, egoerak hobera egingo duen itxaropena azaltzen dute, Euskal Autonomi El-

kartean ezezik baita Estatu espainiarrean ere, aurrera egiteko eta European integratzeko une egokian aurkitzen baikara. Nahiz eta parlamentu eta gobernuetan parte hartzen duten emakume kopuruari dagokionez atzera samar aurkitzen garen, kontuan hartu behar da politikan sartzeko prozesua hemen beste nazioetan baino beranduago hasi zela.

Elkarriketatu diren emakumeek, bestalde, salatu egiten dute alderdi politikoetako exekutibetan kopuruz emakumeak gizonak baino askoz gutxiago direla.

Bildu diren iritzi guztien arabera, emakumeak eremu politiko horretan gero eta gehiago sartzen badira ere, botere handieneko postuak (exekutibak, kasu) haientzat debekatuak daude. Arrazoiak, modu askotakoak.

Emakumeak, duela gutxi hasi direnez politikan sartzen, inportantzia txikiko postuetara zokoratzten dituzte.

Kontuan hartu behar da, gainera, postu batzuetarako nolabaiteko prestakuntza ere behar izaten dela, eta adinez politikan maila handiko karguak eskuratzeko moduan dauden emakumeek sarritan ez dute prestakuntza hori izaten, zeren eta Unibertsitatean, adibidez, denbora askoan ez baitute sartzerik izan.

Beste arrazoi bat da emakumeei prestakuntza handiagoa eskatzen zaiela, aurriritzi bat dagoe-lako emakumeak ez duela politikarako balio. Beraz, emakume batek, gizon bat iristen den lekura iristeko, frogatu behar izan du gizonak frogatutakoa baino gehiago balio duela. Gai honetaz pentsamolde aldaketaren premia gorrian gaude.

Eta azkenik, aipatu ere aipatzen da emakumeek erantzunbehar handiagoko postuak eskuratzten dituztenean gizonezkoei kentzen dizkietela, eta hortik gatazkak sortzen direla.

Alderdi politikoen exekutibetan emakumeen presentzia aztertzerakoan analizatu behar den datu garrantzitsu bat da batzuek hartu duten erabakia, hots, goi karguetan emakume kuota bat jartzearena. Gai honetaz bai eta kuota horri jartzen zaion balioaz ere jaso diren iritziak guztiz ezberdinak dira.

Emakume batzuentzat bereizkeria hau positiboa da, emakumeek maila politiko batzuetan parte hartu nahi dutenean aurki ditzaketen hesiak gainditzeko balio duelako. Beste batzuentzat ordea, behin-behineko neurria izan behar du, horixe besterik ez, hain zuzen ere postuak eskuratzeko modu bakarra batbederaren balioak izan behar duelako. Denek onartzen dute emakumeek gizonekin konparatuta desabantaila dutela, beraz arazo honi soluzioa ematen ez zaion bitartean kuotaren neurriak balio du. Bada kuotarekin bat ez datorrenik, holakoei emakumeei politikarako sarbidea hobetzeko ahalegin bat baino gehiago alderdikeriakzko estrategia iruditzen zaie. Kuotaren sistemak balio du, laguntzarako beste neurri bat den heinean, bestelako ekintze-kin batera, baina bera bakarrik ez da aski. Eta hondarraren hondarrean, bada uste duenik hori hutsegite bat dela eta goi karguetara iristeko modu bakarra norberaren merezimenduak direla.

Goizegi da oraindik neurri honen ondorioa zernolakoa izan den jakiteko. Alderdi politiko batzuk praktikan jartzea erabaki dute, eta beste batzuk berriz ez daude ados, horregatik une honetan ondorioak ateratzea ez litzateke zuhurregia izango.

E

ERASKINA

A.1. TAULA. Emakumeen proportzioa Kongresuan, Legegintzaldi ezberdinetan, alderdi politiko edo hauteskunde koalizioen arabera

1977-79				1979-82				1982-86			
	GUZTIRA	EMAKUMEAK			GUZTIRA	EMAKUMEAK			GUZTIRA	EMAKUMEAK	
		Osoara	%			Osoara	%			Osoara	%
UCD	166	7	4,2	UCD	166	11	6,6	PSOE	202	18	8,9
PSOE	118	11	9,3	PSOE	120	6	5	AP	108	2	1,8
AP	16	1	6,3	CP	9	1	11,1	UCD	12		
M CATALANA	13			CIU	8	1	12,5	CDS	2		
EAJ-PNV	8			EAJ-PNV	7			CIU	12		
PCE	20	3	15	PCE	23	2	8,7	PNV	8	2	25
MIXTO	9			MIXTO	17			PCE	4		
								HB			
								EE	1		
								UV			
								PAR			
								ERC	1		
GUZTIRA	350	22	6,3	GUZTIRA	350	21	6	GUZTIRA	350	22	6,3

1986-89				1989-93			
	GUZTIRA	EMAKUMEAK			GUZTIRA	EMAKUMEAK	
		Osoara	%			Osoara	%
PSOE	184	13	7,1	PSOE	176	31	17
CP	105	8	7,6	PP	106	10	9,4
CDS	19			CDS	14		
CIU	18	1	5,5	CIU	18	1	5,6
EAJ-PNV	6			EAJ-PNV	5		
IU	7			IU	17	2	11,8
HB	5	1	20	HB	4	1	25
EE	2			EE	2	1	50
UV	1			UV	2		
PAR	1			PAR	1		
CG	1			PA	2		
AI	1			EA	2		
				AIC	1		
GUZTIRA	350	23	6,6	GUZTIRA	350	46	13,1

Iturria: Emakumea zenbakitan Politika 1991.

A.2. TAULA. Emakumeen proportzioa Senatuan, alderdi politiko eta talde parlamentarioen arabera

1977-79				1979-82				1982-86			
	GUZTIRA	EMAKUMEAK		GUZTIRA	EMAKUMEAK			GUZTIRA	EMAKUMEAK		
		Osozaria	%		Osozaria	%			Osozaria	%	
UCD	106	2	1,9	UCD	119	4	3,4	PSOE	157	10	6,4
PSOE	35	1	2,9	PSOE	70	2	2,9	AP	68	1	1,5
Indep.	10	0	0	AP/CP	3	0	0	Otros	28	0	0
Beste batzuk	56	1	1,8	Otros	16	0	0				
Designación Real	41	2	4,9								
GUZTIRA	248	6	2,4	GUZTIRA	208	6	2,9	GUZTIRA	253	11	4,3

1986-89				1989-93			
	GUZTIRA	EMAKUMEAK		GUZTIRA	EMAKUMEAK		
		Osozaria	%		Osozaria	%	
PSOE	149	12	8,1	PSOE	128	20	15,6
CP	75	2	2,7	PP	90	7	7,8
IU	1	0	0	CDS	7	0	0
CDS	2	0	0	CIU	11	1	9,1
CIU	9	0	0	PNV	6	0	0
PNV	11	0	0	Mixto	9	0	0
AM	1	0	0				
Indepen	2	0	0				
UM	1	0	0				
GUZTIRA	251	14	5,6	GUZTIRA	251	28	11,2

Iturria: Emakumea zenbakitan. Politika 1991. Emakumearen Erakundea, Madril.

A.3. TAULA. Emakumeen presentzia Eusko Legebiltzarreko batzordeetan, IV. Legegintzal- dian

	INDUSTRIA ETA NEKAZARITZA		LURRALDEAREN ANTOLAKUNTZA ETA GARRAIKAK		ERAKUNDEAK ETA HERRIZAIINGOA		EKONOMIA, OGASUNA ETA AURREKONTUAK		HEZKUNTZA ETA KULTURA		PREMIAZKO LEGEGINTZA, ARAUERIA ETA GOBERNUA		BATERAEZIN- TASUNAK		LANA ETA OSASUNA	
	Guztira	Emak.	Guztira	Emak.	Guztira	Emak.	Guztira	Emak.	Guztira	Emak.	Guztira	Emak.	Guztira	Emak.	Guztira	Emak.
Lehendakaria	1	0	1	1	1	0	1	0	1	1	1	0	1	0	1	0
Lehendakariordea	1	0	1	0	1	0	1	0	1	0	2	0	1	0	1	1
Idazkaria	1	0	1	0	1	1	1	0	1	0	2	0	1	0	1	1
Mahaikideak	14	0	14	1	13	3	14	4	14	6	17	1	13	3	14	5
GUZTIRA	17	0	17	2	16	4	17	4	17	7	21	1	16	3	17	7
OSOTARA	—	0	—	11,8	—	25	—	23,5	—	41,2	—	4,8	—	18,7	—	41,2
GUZTIRA %tan																

	EITB-REN KONTROLA		DROGAMEN- PEKOTASUNAK		EUROPAKO ELKARTEAK		ZUZENBIDE ZIBILA, FORALA ETA BEREZIA		GIZAESKUBIDEAK		GUZTIRA		
	Guztira	Emak.	Guztira	Emak.	Guztira	Emak.	Guztira	Emak.	Guztira	Emak.	Guztira	Emak. Osotara	Emak. %
Lehendakaria	1	0	1	0	1	0	1	0	1	0	13	2	15,4
Lehendakariordea	1	0	1	0	1	0	1	1	1	1	14	3	21,4
Idazkaria	1	1	1	0	1	0	1	0	1	0	14	3	21,4
Mahaikideak	14	2	14	4	14	2	13	2	14	3	182	36	19,8
GUZTIRA	17	3	17	4	17	2	16	3	17	3			
OSOTARA	—	17,6	—	23,5	—	11,8	—	18,7	—	17,6			
GUZTIRA %tan													

Iturria: Bertan prestatua, Eusko Legebiltzarrak emandako datuetan oinarrituz.

A.4.a) TAULA. Emakume/gizonezko parlamentariak lurralde historikoen arabera, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, 1986an

ARABA

	EMAKUMEAK		GIZONAK		GUZTIRA	
	Osotara	%	Osotara	%	Osotara	%
EA	2	50	2	50	4	100
EAJ-PNV	0	0	5	100	5	100
EE	0	0	3	100	3	100
GPM-UA	0	0	3	100	3	100
HB	0	0	3	100	3	100
PP	0	0	0	0	0	100
PSE-PSOE	1	14,3	6	85,7	7	100
GUZTIRA	3	12	22	88	25	100

BIZKAIA

	EMAKUMEAK		GIZONAK		GUZTIRA	
	Osotara	%	Osotara	%	Osotara	%
EA	1	33,3	2	66,7	3	100
EAJ-PNV	0	0	8	100	8	100
EE	0	0	3	100	3	100
GPM	0	0	1	100	1	100
HB	1	25	3	75	4	100
PP	0	0	0	0	0	100
PSE-PSOE	1	16,7	5	83,3	6	100
GUZTIRA	3	12	22	88	25	100

GIPUZKOA

	EMAKUMEAK		GIZONAK		GUZTIRA	
	Osotara	%	Osotara	%	Osotara	%
EA	1	16,7	5	83,3	6	100
EAJ-PNV	0	0	4	100	4	100
EE	1	33,3	2	66,7	3	100
GPM	0	0	0	0	0	100
HB	0	0	6	100	6	100
PP	0	0	0	0	0	100
PSE-PSOE	0	0	6	100	6	100
GUZTIRA	2	8	23	92	25	100

Iturria: Bertan prestatua, Eusko Legebiltzarrak emandako datuetan oinarrituz.

A.4.b) TAULA. Emakume/gizonezko parlamentariak lurralde historikoen arabera, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, 1990ean

ARABA

	EMAKUMEAK		GIZONAK		GUZTIRA	
	Osotara	%	Osotara	%	Osotara	%
EA	0	0	2	100	2	100
EAJ-PNV	1	16,7	5	83,3	6	100
EE	0	0	2	100	2	100
GPM-UA	2	66,7	1	33,3	3	100
HB	0	0	3	100	3	100
PP	0	0	3	100	3	100
PSE-PSOE	1	16,7	5	83,3	6	100
GUZTIRA	4	16	21	84	25	100

BIZKAIA

	EMAKUMEAK		GIZONAK		GUZTIRA	
	Osotara	%	Osotara	%	Osotara	%
EA	0	0	2	100	2	100
EAJ-PNV	3	30	7	70	10	100
EE	0	0	2	100	2	100
GPM	0	0	0	0	0	100
HB	1	25	3	75	4	100
PP	0	0	2	100	2	100
PSE-PSOE	1	20	4	80	5	100
GUZTIRA	5	20	20	80	25	100

GIZPUZKOA

	EMAKUMEAK		GIZONAK		GUZTIRA	
	Osotara	%	Osotara	%	Osotara	%
EA	1	20	4	80	5	100
EAJ-PNV	1	16,7	5	83,3	6	100
EE	1	50	1	50	2	100
GPM	0	0	0	0	0	100
HB	1	16,7	5	83,3	6	100
PP	0	0	1	100	1	100
PSE-PSOE	0	0	5	100	5	100
GUZTIRA	4	16	21	84	25	100

Iturria: Bertan prestatua, Eusko Legebiltzarrak emandako datuetan oinarrituz.

A.5. TAULA. Emakumeek 1987 eta 1991ko Batzar Nagusietan izandako partaidetzaren konparaketa, alderdi politikoaren arabera

	1987				1991		
	Guztira	Emakumeak	Emakumeak %tan		Guztira	Emakumeak	Emakumeak %tan
CDS	4	1	25	CDS	—	—	—
EA	35	4	11,4	EA	19	2	10,5
EAJ-PNV	32	4	12,5	EAJ-PNV	47	11	12,8
EE	12	3	25	EE	8	0	0
HB	32	4	2,5	HB	27	6	22,2
PP/AP	6	0	0	PP	9	0	0
PSE-PSOE	—	—	—	PSE-PSOE	32	5	15,6
				UA	11	1	9,1
GUZTIRA	153	17	11,1	GUZTIRA	153	20	13,7

Iturria: Emakunde.

B

BIBLIOGRAFIA

Astelarra, J. "Emakumeen partaidetza politikoa". CIS Arg. 1990.

Emakumearen Erakundea. "Emakumea partaidetza politiko eta hiritarraren aurrean". Madril, 1988

Martínez Ten, C. "Emakumearen partaidetza politikoa Espainian". LEVIATAN, 1986.

Alberdi, I. "Emakumeen partaidetza politikoa". LEVIATAN, 1987.

Barbadillo, P. "Emakumea Diputatuen Kongresuan". REIS, 1990

Femmes d'Europe. "Europako emakume eta gizonak". 1983an. 16. zk.

Europako Emakumeak. "Europako emakume eta gizonak". 1987an. 26. zk.

Emakumearen Erakundea. "Emakumea zenbakitan". 1988. Madril, 1988.

Emakumearen Erakundea. "Emakumea zenbakitan". 1991. Madril, 1991.

Emakumearen Erakundea. "Emakumea Espainian: Egoera soziala". Madril, 1990.

Emakunde. "Emakumeak Euskal Autonomi Elkartean". Gasteiz, 1991.

Emakunde. Emakumearen Euskal Erakundea. "Euskadiko emakumearen egoerari buruzko txostena". 6. kap.: Partaidetza politikoa eta elkartegintza. Gasteiz, 1989.

Emakumearen Erakundea. "Emakume espainiarrak politikaren aurrean". Madril, 1988.

Emakumearen Erakundea. "Emakumezkoen presentzia Gorteetan". 1977-1986. Madril.

Emakumearen Erakundea. "Emakumeen partaidetza politikoa demokrazian". Madril, 1987.

Europako Elkarreak. Europako Parlamentua. "Bilkuren agiria: emakumea erabaki zentroetan". 1988-89.

Gorte Nagusiak. "Emakumeen partaidetza bizitza politikoan eta erabaki-hartze prozesuetan". Gorte Nagusiak Arg. 1988, Madril.

Eusko Jurlaritzak. "Emakumearen egoera Euskadin". Eusko Jurlaritzak Arg., 1982.

Emakumearen Erakundea. "Emakumearen partaidetza politikoa eta hiritarra." Emakumezko hautetsientzako ihardunaldiak. Andaluziako Elkarre Autonomoa, 1988.

Eusko Jurlaritzak. "Emakumea eta errealitate soziala". Munduko II. Euskal Kongresua. Bilbo, 1988.